



## Kinto soka

Bakaikun, Iturmendin, Urdiainen, Altsasun eta Ziordian Santa Ageda ospatuko da / 13-14

**Altsasuko Udalak 7,7 milioi euroko aurrekontua onartu du, hainbat inbertsio jasotzen dituen** / 10-11

**Abiadura Handiko Trenaren kontra eta tren sozialaren aldeko mezua Bruselara eramana** / 10



**Aritz Ganboa artzainak Arruazu eta Izaba lotuko ditu, mendian barna laster eginez** / 8-9

**Igor Arrieta oso txukun aritu zen Danimarkako Ziklokros Mundialean: 43.a sailkatu zen** / 17

**'Dantza' filma izanen da datorren astean, lortian, eta Telmo Esnal zuzendaria egonen da** / 23

*Migdalila*  **OUTLET**

  
Bizi - Jantzi

**Doako sarrera**

**Noiz**  
Otsailak 15, 16 eta 17  
**Non**  
Beasaingo Igartza Jauregian  
**Ordutegia**  
10:00 - 14:00 /  
16:00 - 20:30

Emakume, gizonetzko, haur eta gazteentzako arropa eta osagarriak  
Taberna - Kutixiak - Umeentzako tailerra - Opariak - Erakusketa - Eta abar

Eneida Carreño eta Mainer Betelu

ALTSASU

**Amerikako Estatu Batuetara (AEB) joateko aukera sortu zitzaizun, beka batekin...**

Bai, ikasturte hasieratik nago han, Baltimoren, Fullbright bekari esker. Salamancan Filologia Ingelesa ikasten nengoan, eta han eman ziguten beka hauen berri. Nik ez nituen ezagutzen, eta nahiz eta beka lortzea oso gogorra izan, bertan izena ematera eta parte hartzera animatu gintuzten. Beka hau lortzeko, lehenik eta behin, ingeles maila ona eskatzen dute. Azterketa bat egin behar da, TOEFEL azterketa. Ondoren, zure curriculum bidali behar duzu, eta gero ere eskatzen dute nota akademikoa gutxienez 8ko batezbestekoa izatea eta proiektu bat idaztea. Zure kabuz, AEBetan zein Unibertsitate dauden aztertu behar duzu, zure hiru gustukoena aukeratu eta hiru haietatik azaldu zer gustatuko litzaizukeen han ikastea. Horretarako, unibertsitate horien web guneak aztertu egin behar izan nituen, zein baldintza eta eskaintza zituzten ikusi, bertan zein aukera zeuden zehaztu eta han zer ikasi nahi nuen adierazi.

**Zein Unibertsitate aukeratu zenituen?**

AEBak izugarri handiak dira, nik ez nekien zein Unibertsitate zeuden. Harvard, Stanford... horiek ezagunak egiten zaizkigu, baina oso urruti ikusten nituen. Linguistika munduan onenak izan zitezkeen unibertsitateak aztertu nituen. Massachusettsen bat zegoen, Marylanden Baltimorekoa... Azkenean hiru aukeratu nituen. Nire intentzioa zen han master bat egitea, eta, hortaz, hiru unibertsitateetako masterren deskribapenak aztertu eta informazioa lortzen aritu nintzen, Unibertsitate bakoitzak zer eskatzen eta eskaintzen zuen. Idatzia egin nuen eta zortea izan nuen.

**Beka lortzeko proiektu zehatz bat garatu behar izan zenuen, ez?**

Beraiek "beka proiektua" deitzen diote. AEBko hiru unibertsitateak aukeratzeko esan behar ze-



UTZITAKOA

# "AEBetan ikastea sekulako esperientzia izaten ari da"

**JAIONE DIAZ MAZKIARAN** MASTER IKASLEA BALTIMOREKO UMBC UNIBERTSITATEAN Salamancako Unibertsitatean Filologia Ingelesa ikasketak bukatuta, atsasuarra Baltimoreko unibertsitatean Kulturarteko Komunikazioa izeneko masterra egiten ari da Fullbright bekari esker. Bekaz, hango ikasketez eta bizitzen ari den esperientzia bikainaz aritu da Jaione Diaz Beleixe irratan (107.3 FM edo [www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus))

nuen zer espero duzun han ikastea eta ikasi duzun guztia nola ekarriko zenukeen hona. Finean, nahi dutena da AEBetan trebatzea baina gero hura hona ekartzea, hemen aplikatzea. Nire masterra "kulturarteko komunikazioa" zen. Nik beti hizkuntzak landu ditut, ingelesa, unibertsitatean frantsesa, eta alde horretatik niretzat berria zen masterra, irakaskuntza mundutik aldentzea eta komunikazio arloan sartzea. Ez nekien zer espero nezakeen, erronka berria zen, baina Maryland-Baltimoreko Unibertsitateko deskripzioa irakurri nuenean, nik banekien Baltimore oso dibertsoa dela, mundu osoko jendea dagoela bertan, eta banekien esperientzia ona izango zela eta han ikasitakoa han bertan ere aplikatu ahalko nuela. Eta horrela da. Nire klasean Salvador, Panama, Uruguai, Nikaragua, Nigeria... toki askotako jendea dago, mundu osokoa. Hizkuntza ikasteaz gain, soziologia, antropologia pixka bat... lantzen dugu. Hori komunikazio arlori eramatea eta arlo desberdinetako materiak erabiltzen nola aplikatu, oso interesgarria da.

**Ikasketen zein mailan zaude orain?**

Salamancan karrera amaitu nuenean urte bateko masterra egin nuen AEBetan, Salamancak aukera ematen zuelako Chicagotik gertu urte bateko masterra egiteko. Beraz, AEBetara joatea ez da berria niretako. "Educación bilingüe" izeneko masterra bukatu nuen, bi hizkuntzatan, gaztelaniaz eta ingelesez. Eta ondoren, ikasturte honetan, beste master hau hasi nuen, "Kulturartekotasun komunikazioa". Oso pozik nago.

**Txikitatik harremana duzu ingelesarekin, ezta?**

Jaio ginenetik aitak ingelesez egiten zigun ahizpari eta niri. Gure akatsa izan zen, behar bada, berari ingelesez ez erantzutea. Aita beti saiatzen zen ingelesez hitz egiten, baina guretzat batzuetan nahasmena zen, euskara, gaztelania, ingelesa... Baina orain, perspektibarekin, eskertzen dugu, ingelesa beti

 <b>EGOKI</b> VENTANAS PVC LEIHOAK <a href="http://www.ventanasegoki.com">www.ventanasegoki.com</a>	KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA <a href="mailto:egoki@ventanasegoki.com">egoki@ventanasegoki.com</a>		 Etxe pasiboetarako egokia	 Beirak lehorrean jarrita
			 Isolamendu nukleo indartsua	 Aparteko azala koloreztatua
948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea				

izan dugulako hor. Klaseetan erraztasuna izan dugu, zentzu horretan. Hara non nagoen, aitaren pausuak segitzen saiatzen. **Nola izan ziren Baltimoreko lehen-dabiziko egunak?**

Beka hasi aurretik, orientazio edo sarrera bat izan genuen Detroiten (Michigan). Ez nuen inor ezagutzen eta nahiko urduri nengoen. Hasi ziren azaltzen AEBetan zer aurkituko genuen, Unibertsitatean eta jendearekiko izan behar genuen jarrera, kultura ezberdina baita... "ready, be prepared..." Ai ama, zer ote datorren! pentsatu nuen. Mundu osoko jendez inguratuta nengoen, eta oso intentsoa izan zen. Bilerak pila genituen, baina une txikiak aprobetxatzen genituen jendearekin hitz egiteko: nongoa zara, zer ikasi behar duzu... Horrela, oso erlazio onak, lagunak egin nituen 3 egun horietan. Zeinen ondo, honek itxura ona dauka! pentsatu nuen. Hortik aurrera oraintxe bertan Georgian, Texasen... lagunak ditut. Haiek bisitatzera joan naiz eta beraiek ere etorri dira bisitan. Familia txiki bat bildu dugu han eta hori eskertzekoa da.

**Nafarroatik bekarekin joan zareten hirurak ez zaudete elkarrekin, ez?**

Ez. Bea New Yorken dago eta Paula Philadelphian. Ni Baltimoren nago (Maryland), Washingtonetik 40 minututara. Baltimoren girotutako The Wire telesailan drogak, krimenak... azaltzen dira. Jendeak esaten zidan: Baltimore? Ikusi duzu The Wire? Beldur puntu batekin nengoen, baina hara heltzerakoan pila bat gustatu zitzaidan. Portu txiki bat dauka, eraikin altuak, AEBak, finean. Baina oso ondo dago. Unibertsitateko campusa UMBC da, eta Baltimoretik 30 minututara dago. Han distantziak izugarri handiak dira. Autobusez mugitzen naiz, Unibertsitateak autobus zerbitzua duelako, dohainik, ikasle guztiendako. Kanpokoek ez dugu autorik eta autobus zerbitzua asko eskertzen da. Campusa nahiko txikia da, 10.000-12.000 ikasle ditu. Ni aurreko urtean Chicagon (Illinois) egon nintzen eta 30.000 ikasle zituen hango campusak. Baina Baltimorekoa txikia izateak bere xarma du: jende gehiago ezagutzen duzu eta sartuago zaude unibertsitate munduan.

**Zenbat klase dituzu?**

Klaseak arratsaldean ditut. Mastreko klaseak dira; hiru klase



UTZITAKOA



UTZITAKOA



UTZITAKOA

ditugu astean zehar, hiru ordukoak. Baina AEBetan ikasleek bere kabuz asko ikasi behar dute, autonomoagoak dira ikasleak. Irakurketa pila bat egin behar dituzu etxean, lanak, eta klaseak seminario bat bezalakoak dira: zer pentsatzen duzu, zergatik uste duzu hau... Hori ongi dago, beste perspektiba batzuetatik ikasten duzulako, baina horrek atzetik lan handia dakar. Ezberdina da.

**Bertako hezkuntza mundua nola ikusten duzu?**

Hezkuntza mundua desberdina da; ikasleek han irakasleekiko harreman estuagoa dute. Nik Salamancan ikasi nuen. 200 ikasle geunden gelan, irakaslea sartzen zen, hiru gauza azaltzen zituen, pim pam pum eta bihar arte. AEBetan irakasleak ikasleei gehiago laguntzeko prest daude. Harremana estuagoa da eta ikasleek irakasleekiko inplikazio handiagoa dute. Hori da gustatzen zaidana. Ni hezkuntzaren munduan sartuta nagoenez, espero dut hori ikastea gero ona ekartzeko.

**Bekak beste lan bat izatea ahalbidertzen dizu?**

Bai. Bekak eskatzen du zu ikasketetan buru-belarri aritzea, ahalik eta hobekien trebatzeko. Horregatik ematen dizute dirulaguntza, zu ikasketetan ahalik eta hobekien aritzeko. Baina hori ziurtatzen baduzu, lan egin dezakezu. Horrela, nik eskatu nuen lan egiteko aukera. Aurten erresidentzia batean bizi naiz eta han gaztelaniazko klaseak ematen ditut, baina modu informalean, jendea dator interesa duelako. Ez dago etxeko lanik, elkartzera eta ikastea hori da kontua. Astean zehar hiru egun. Ez da asko, baina aukera ematen dit lan munduan sartzeko.

**Erresidentzian jatorri askotako ikasleak egongo zarete, ezta?**

Bai, gu nazioarteko pisuan bizi gara. Alemania, Gales, Puerto Rico... denetatik gaude, eta oso interesgarria da bakoitzak bere kultura daramalako. Nik behin "The Basque Night" antolatu nuen. Euskal Herriari buruzko Power Pointa prestatu nuen, informazioarekin, argazki pila batekin... Batzuek ez zekiten zer zen Euskal Herria. Ni emozioz atuta nengoen: fitxa bat prestatu nuen euskarazko hitz bereziekin eta beraiek ahozkatzen saiatzen ziren; Ken 7ren Ilargia kanta entzun genuen, letra irakurri eta azaldu nien, eta pintxoak

egin genituen: osagai pilo bat jarri genituen eta bakoitzak bere pintxoia prestatu zuen eta azkenean dantza egin genuen, polka. Sekulako festa. Hain urrun egonda, etxetik gertu sentitzeko balio izan zidan. Egun horren ostean etortzen zitzaizkidan: "Jaione, kontatu Euskal Herriko gauza gehiago: nolakoa da Donostia?". Kulturarteko Komunikazio masterrean, behin, klase batean bilingualism ikasten ari ginela, bi hizkuntza dauden tokietan zein egoera duten hizkuntzek, nik euskarari buruz hitz egin nien. Ikustea zure klasekide guztiak zuk diozunari adi... pozez zorazten. Oso interesgarria da.

**Beraz, ikastera zoaz, baina irakastera ere bai...**

Bai, hurrengo urtean Unibertsitatean irakatsiko dut. Fullbright bi urterako beka da.

**Tutoreren bat duzu? Nolako jarripena egiten dizute?**

Urtero pertsona bat bidaltzen dute Unibertsitatara. Han daukat Kataluniako neska bat, Mireia, eta pilo bat lagundu zidan: joan hona, bestera... Gainera, kotxea dauka eta toki askotara eramaten nau. Guk pixkat egiten dugu hurrengo



UTZITAKOIA

pertsonaren gida gisa eta badaukagu tutore bat antzerakoa ere. Duela 17 urte emakume bat etorri zen, ni bezala, eta han geratu zen bizitzen. Bera da gure tutorea, ia ia gure ama bezala. Harrera egiten digu, notak kontrolatzen dizkigu, ea zer moduz zauden... Berak ematen du informazioa Fullbright komisiora, jakiteko ongi gaudela. Bera da bitartekaria.

**Herrimina baduzu?**

Bai, hori ez da kentzen. Nire karrerako 3. urtean Edinburghen egon nintzen, lehenengo urtea etxetik kanpo. Gero, karrera amaituta, Chicagon egon nintzen, beste urte bat herritik kanpo. Eta aurtien eta hurrengoan Baltimoren. Baina lagunak egiten dituzu eta pertsona horiek bilakatzen dira zure familia. Gurasoekin eta lagunekin WhatsApp eta Facetime bidez harremana dugu, beti,

baina errutinari sartuz gero, ez duzu denbora gehiegirik ere. Gero ordu diferentzia dago, sei ordukoa. Baina senitartekoei baldin badakite ongi nagoela, kitto. Eta lagunekin sartzen naiz WhatsApp taldean eta igual 400 mezu ditut. Zaila da guztia eguneratuta eramatea, baina saiatzen naiz erlazioak mantentzen. Beti zure bihotz zati bat etxean dago.

**Nola daramatzazu ikasketak?**

Oraingoz ondo. Gogorra da, lan handia baita. Irakurri eta idatzi egiten dugu, pilo bat. Azterketak edo partzialak ez dira hainbeste, Gehiago da idazketak, proiektuak... baina moldatzen naiz.

**Kantatzea da zure zaletasunetako bat. Faltan botatzen duzu?**

Nire ahizparekin abestea, nire zaletasunetako bat da eta pentsatzen nuen faltan botako nuela. Baina AEBetako campusetan klub pilo bat daude: kirolekoak (tenisa, saskia, igeriketa...) eta baita kantu eta dantzakoak ere. A capella talde bat ikusi nuen, eta pentsatu nuen: "Amerikan erabateko esperientzia biziko dugu: goazen!". Taldean izena eman nuen eta haiekin nabil. Kontzertuak egin ditugu eta

horrek ilusioa ematen dit, ze azken finean kantatzea gustatzen zaidan zerbait da eta hango jendearekin ere bai.

**Ikasleak halako esperientzia bat izatera animatuko zenituzkete?**

Nik ez nekien ezer beka honi buruz, erabat berria zen niretzat. Egia da askotan pereza ematen digula, edo etxetik kanpo hainbeste denbora igarotzera joateak zer pentsatu ematen digu, baina asko ikasten da, eta esperientzia bera. Nik abentura berri bat bezala ikusten dut eta gomendatzen dut. Azken finean han ikasteko diru-laguntza da, eta aukera ematen dizu desberdintasunak ikusteko. Hemengo ikasteko modua, hangoa... eta esperientzia guztiak, jende asko ezagutzen duzu eta familia txiki bat sortzen duzu. Beti itzuli zaitezke hara. Nik lagunak ditut Turkian, Mexikon... Beti pentsatzen dut berriak Euskal Herrira etorri ahal direla, gero ni hara joan... Aukera asko ematen dizkizu. Eta animatzen dut jendea beketan izena ematera. Nik ez nuen beka lortzea espero, inondik inora, baina ahaleginak tarteka halako sorspresak ekartzen dizkigu.

## Elkarrizketez, ikasleekin

Aurreko ostiralean, Altsasuko Institutuko DBHko 3. mailako ikasleek eta irakasleek gonbidatuta, saio praktikoa eskaini genuen Guaixe astekariko bi kidek. Ahozotasuna proiektuan, euren aitona-amonei elkarrizketak egiten ari dira ikasleak. Horrela, Guaixen elkarrizketak nola prestatzen ditugun azaldu genien: nola erabakitzen dugun nor elkarrizketatu, egin beharreko dokumentazio lana, galdera zerrenda prestatu, transkripzioak...

Bukaeran, laburbildu genuen moduan, "gogoratu, edozein pertsonak duela zerbait interesgarria kontatzeko, dokumentazioaren garrantzia eta ondorengo transkripzioa".



ALTSASU INSTITUTUA



ASTEKOA

ZOILA BERASTEGI MARIÑELARENA

## Skolae eta suak pizten dituzten suhiltzaile txikiak

Nafarroa beti izan da muturrekoa, horregatik Skolaek piztu duen lurrikarak ez nau gehiegi harritzen. Berdintasunean oinarritutako gizarte bat aldarrikatuzetik haratago, gizarte hori eraikitzeko bidean pauso zehatz bat suposatzen duen heinean, beren sinismenen aurkako eraso zuzentzat hartu dute hainbat navarrak eta navarrok. Historia beti da indar kontserbadore eta aurrerakoien arteko talka bat, eta noizean behin olatu bizi eta bortitzez azaleratzen dira, zerbait mugitzen ari denaren seinale. Baina komunikabideetako zaratak zarata, errealitateak desberdintasunarekin, eta honen oinarrian dagoen matxismoarekin amaitzeko beharra aurpegiratzen digu etengabe: 17 urteko nerabe bat, bere 19 urteko bikotekidearen eskutan erahila; suhiltzaile izateko mutila jaio behar dela uste duen lau urteko neskatila, liburutan suhiltzaile neskarik ikusten ez duela eta; ikasketa maila handiko neska etorkinen bi lan aukerak, hots, garbiketa ala zainketa, lan banaketa, soldata arrakala, kristalezko sabaiaik...

### HISTORIA BETI DA INDAR KONTSERBADORE ETA AURRERAKOEN ARTEKO TALKA BAT

ez daitezun? Skolaeren indar handi bat formatzaileen formakuntza da. Aspalditik dakigu hezkuntza dela gakoa. Gure ikasgeletan, gure etxeetan gertatzen diren egoera ñimiño horiek dira klabea. Bizitza jolas bat bezala hasten da, helduen bizitzarako entrenamendu bat. Su txikiak dira. Batzuk itzali beharrekoak eta beste batzuk aldiz, hauspotu beharrekoak; liburuetan agertzen diren suhiltzaileak neskak nahiz mutilak izatea lortu arte.

**GUTUNAK:** Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

## OBJEKTIBOTIK

### Olatzagutia eta Ziordia arteko zabor erreka

Olatzagutia eta Ziordia arteko industrialdean dagoen erreka argazkia bidali digu beste irakurle batek. Kasu honetan ez dugu izaki gardenik ikusten, hauek mardulagoak dira, handiagoak, zatarragoak. Oraingo honetan erreka izan beharko liratekeen lekuan, zabor eta obra-hondakinen erreka ikus dezakegu, bertan izan litezkeen landare eta animaliak guztiz desagerraraziz. Gainera, euri asko eginez gero, uholdeak larritzen ditu egoera honek, tapoiak eraginez.



UTZITAKOIA

*Jaso Guaixe astekaria ostiralero zure postontzian. Egin zaitetz bazkide!*

948 56 42 75 | [guaixe.eus/harpidetza](http://guaixe.eus/harpidetza)

# guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

[www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)

**Koordinatzailea:**  
Goizeder Anton Iturralde  
fundazioa@guaixe.eus

**Diseinu zerbitzua:**  
GK, Olatz Aldasoro Martinez de Ilardua  
gk@gomunikazioa.eus

**Administrazioa:**  
Gema Lakuntza Lopez  
admin@guaixe.eus

**Zuzentzailea:**  
Patxi Flores Lazkoz

**Lege gordailua:** NA-633/1995  
**Tirada:** 3.200

**Erredakzio burua:**  
Alfredo Alvaro Igoa  
guaixe@guaixe.eus

**Erredakzioa:**  
Maider Betelu Ganboa  
kirolak@guaixe.eus  
eta Erkuden Ruiz Barroso  
kultura@guaixe.eus

**Maketatzailea:**  
Irene Trecet Obeso  
maketazioa@guaixe.eus

**Publizitatea:**  
Maria Saez de Albeniz Bregaña  
publizitatea@guaixe.eus  
eta Eneida Carreño Mundiñano  
publi@guaixe.eus

**ARGITARATZAILEA:**  
Guaixe Fundazioa.  
Foru plaza 23-1.  
31800 Altsasu  
948 564 275  
948 562 107 (Faxa)  
618 882 675

LAGUNTZAILEAK

# Mank

s a k a n a

## BAZKIDEAK



**Nafarroako Gobernua**  
**Gobierno de Navarra**



Parte-hartze prozesuaren ondoren, larunbatean aurkeztu zuten Bakaikuko Plan Estrategikoa. @BAKAIKU\_INFO

## Bakaikurako hiru lehentasun zehaztu dira

Etxebizitza, eskola hartzen zuen eraikina eta auzolana dira. Garilera arte auzolanarekin ariko dira eta irailetik aurrera beste bi gaietara helduko diete. Planaren jarraipen batzordea sortu dute

### BAKAIKU

Joan den urtean hasitako ibilbidea larunbatean despeditu zuten bakaikuarrek 2018-2028 Bakaikuko Plan Estrategikoa aurkezpenarekin. Egoitz Urritza alkateak azaldu digunez, prozesua gidatu zuen Emun kooperatibaren aurkezpenean 40 bat bakaikuar izan ziren. Prozesua laburbiltzearekin batera, ondorioen berri eman zuen Emun-eko kideak. Aner Galartza zinegotziak gaineratu duenez, larunbatean “lehentasunak zeintzuk diren eta zeri ekinen diogun, nola antolatuko garen. Horretaz aritu ginen”.

Galartzak azaldu digunez, “herriarrek hala aukeratuta, eskola zaharra haren egoera dela eta horri irten bide bat ematea, alternatiba bat ematea etxebizitzaren gaiari eta herrian dauden beharrei eta, azkenik, auzolana”. Zinegotziak argitu duenez, “diagnosian agertu da etxe huts dextente daudela, nahikoa zaharrak. Eta, gero, herriko

gazteak etxetik ateratzean eta beren proiektua abiatzerakoan zailtasunak daudela. Gai horri behar bezala heltzea dagokigu”. Eskola zaharren eraikinaz galdetuta, Urritzak, Bakaikuko alkateak, azaldu digu eraikin handia dela eta “urte luzez pixka bat utzita egon da. Ez da mantentze lanik egin. Egia esan, oso egoera txarrean dago. Bestetik, gimnasia, zumba eta besteak udaletxean egiten dira, baina ez da leku aproposena. Erabilera anitzeko lokal bat falta da”. Egoitzarako ideia falta ez dute bakaikuarrek: haurrendako eta adinduendako gelak... “Horri buelta handi bat eman beharko diogu”.

Badaude beste gai batzuk, Urritza alkatearen esanetan “garrantzitsuak direnak, baina aukeratzeko orduan babes gutxiago izan zutenak”. Azken horien artean daude, besteak beste, kultura eta aisia, arkitektura-oztopoak, zerbitzuak, lehen sektorea...

### Egutegia eta ardura

Urritzak azaldu duenez, inauteriak, Aste Santua, hauteskundeak, udal aldaketa eta beste datozela jakinik, aurreneko lehentasuna ez bada ere, auzolanarekin hasiko dira. “Nola izan behar duen, eztabaida abiatu, proposamena sortu...” Otsailetik garilera arte ariko dira horretan, azken erabakia hartu arte. “Eta erabaki genuen irailetik aurrera etxebizitza eta eskola zaharrari alternatiba bilatzen hastea. Bi gai horiek sakonagoak dira, lan gehiago dute. Luze emanen du”.

Galartzak azaldu digunez, “udalak plan estrategikoa osatzeko prozesua martxan jarri zuen. Baina ikusita herrian zein

### PLANAREN JARRAIPIEN BATZORDEAREN LEHEN BILERA GAUR, 19:00ETAN

interesa sortu duen, jendearen ekarpenarekin eta lan honekin segitzeko, ahalik eta zabalena izateko, larunbatean plan estrategikoren jarraipen batzordea egitea proposatu genuen. Herriarrek eta udaleko ordezkariak osatu dugu”. Bere lana Bakaikuko plan estrategikoa gauzatzeko segimendua egitea da. Batzuek larunbateko aurkezpenean bertan eman zuten izena, baina parte-hartzeko deialdi irekia egin du Bakaikuko Udalak. Galartzak azaldu duenez, “jende dextente eman du izena. Pozik gaude horrekin ere”. Jarraipen batzordeak aurreneko bilera gaur du, 19:00etan, udaletxean. “Orain dator lan politena, eta zailena”.

### Prozesua

Bakaikuko Plan Estrategikoa egiteko prozesua laburtu digu Urritzak. Lehenik Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza jaso zuten. Prozesua dinamizatzeko ardura Emun-i eman zion udalak. Diagnostikoa egiteko hiru bakaikuar elkarrizketatu zituzten. Jubilatuekin ere saio bat egin zuten eta, azkenik, bakaikuar guztiei irekiak ziren hiru saio egin ziren. Zer Bakaiku nahi duzun, zein behar dauden eta zer egin daitekeen galderei erantzuna eman zieten bakaikuarrek. Bukatzeko, ondorioak eta balorazioa.

Udalean “oso balorazio ona” egin dutela esan digu alkateak. “Jende pila bat gerturatu da, 340 biztanletik 80-90 pertsona, askotarikoa, adinari, sexuari eta hizkuntzari dagokienez. Kopuru aldetik pozik gaude. Baina jendearen jarrera, ekarpena, gogoia, ilusioa... Bileretan egon diren pertsonen artean ahalmena dagoela ikusi da. Gu oso pozik eta herriari oso eskertuta gaude”.

Urritzak gaineratu du “oso aberasgarria” dela: “herri bakoitzak bere etorkizuna pentsatu eta egin behar du”. Egindako prozesua nahiago du udala osatzen duten pertsonak “borobil itxian” hartutako erabakiekin baino. Beste herrietara esportagarria den galdetuta, “herri bakoitzak bere ezaugarriak eta errealitateak” dituela esan du Galartzak. “Jendea halakoak egitera animatzen dugu”. Sakanako Garapen Agentziaren laguntza ere izan dutela argitu dute.



Eguzki-plakak teilatuan. UTZITAKOIA

## Eguzki plakak Arakilgo udaletxeko teilatuan

Autokontsumoa handitu eta erregai fosil gutxiago erabili eta dirua aurreztuko du udalak

### ARAKIL

Joan den urteko lastaila akaberaz geroztik Arakilgo Udalararen teilatuan eguzki-plakak daude. 9.971, 61 euroko inbertsioa egin du udalak. Ordainketa egiteko 5.000 euroko diru-laguntza izan du Arakilgo Udalak, zeinak espero duen inbertsioa 11 urtetan amortizatzea. Urteroko aurrezpena 430 eurokoa izanen da. Eguzki plaka horien bidez sortutako argindarraren erdia udaletxea energiaren bidez bideratzen da. Eta beste % 38 etorkizuneko kontsumoetarako gordetzen da. Kontsumo datuen berri ematen duen pantaila udaletxeko itxaron gelan ikus daiteke. Arakilgo udal arduradunen asmoa egitasmoaren berri arakildar guztiei jardunaldi baten bidez ematea da. Beti ere, halako neurriak hartu behar diren sentsibilitatea zabalteko.

Neurri hori jasangarritasunaren alde udalak hartutako hainbat neurri segida ematen die. Izan ere, 2014tik Goiener kooperatibako bazkide da. Haren eskutik etorri zen 2017an biomasa galdara jartzea eta lastailan eguzki-plakak. Bestetik, udala birziklatutako papera erabiltzen hasi da. Kontzejuei dagokienez, Ihabarren antzeko galdara dute 2017tik.

# Guaixe eta Oixe, denboraren makinak

Guaixek aurten 25 urte beteko ditu eta urtean zehar hainbat ekimen antolatuko ditu fundazioak. Aurrena hilabetekari eta astekari zaharrak ikusgai jarriko dituen erakusketa ibiltaria da, liburutegiz liburutegiko ibilbidea Urdiainen hasiko duena

## SAKANA

Guaixe hilabetekaria aurreneko 1994ko abenduan argitaratu zen. 25 urteko ibilbidea dugu beraz, ospatzeko. Eta, horretarako, Guaixe fundazioak urtean barna hainbat ekimen antolatzea erabaki du. Horretarako *Batzen gaituena* lelo eta propio sortutako logotipo bat erabiliko ditugu. Eta zer batzen gaitu gu guztiok? Euskarak batzen gaitu. Sakanak batzen gaitu. Guaixek batzen gaitu.

Guaixek, hilabetekari moduan lehenik eta astekari moduan orain, euskara Sakanako etxetara sartzen ia mende laurden egin du. Eta batzen gaituen horri erreparatu eta atzera begira jartzea egokia litzatekeela iruditu zaio Guaixe fundazioari. Horregatik, Guaixe hilabetekari (1994-2003) eta Oixe astekari (2001-2003) osatutako erakusketa ibiltaria prestatu du. Egungo astekariaren oinarri eta jatorria izan zirenak berriro irakurleen eskura jarriko ditugu. Haiek ezagutu zituztenak aspaldiko kontuak errepasatu ahal izateko, izan diren aldaketez gogoeta egiteko eta, zergatik ez, atzerako nostalgiazko begirada egiteko. 25 urte asko dira, edo ezer ez tangoaren arabera, baina dagoeneko bada sakandar



Liburutegietan agertoki hau aurkitzen baduzu, denboran atzera egin ahal izango duzu.

belaunaldi bat Guaixe betidanik etxean ezagutu duena eta ez duena Sakana euskarazko toki prentsarik gabe ezagutu. Erakusketak, beraz, gazte horiei Guaixeren hastapenak ezagutu eta, zergatik ez, senideak eta ezagunak argazki zaharretan ikusteko aukera emanen die.

Hilabetekari eta astekari osatutako erakusketa ibiltaria izanen da, Sakanako liburutegi batetik bestera ibiliko da. Erakusketa propio hartuko duen set bat prestatu du Guaixe fundazioak, liburutegi bakoitzaren

espaziora egokituko dena. Baldez, mahaiaz eta aulkiaz osatutako espazio berezi horretan hementeko kontsultatze aukera izanen da.

Erakusketak ibilbidea Urdiaingo udal liburutegian hasiko du, Guaixek bere lehen bulegoa izan zuen tokitik pare bat metrora. Urdiainen astelehenean otsailaren 22ra izanen da ikusgai. Martxoaren 11tik 29ra Altsasuko liburutegian izanen da eta Arbizukoan apirilaren 1etik 17ra. Gainontzeko herrietako datak aurrerago jakinaraziko ditugu.



Emakumeak Olatzagutiako Kultur etxearen kanpoan. ARGAZKIJABEAXXX

## Mankomunitatearen Berdintasun Zerbitzua, aste kontua

Emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasuna sustatuko duen zerbitzua martxorako martxan

### SAKANA

Azken asteetan ibarreko maki bat udalek hartu dute erabakia: emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasuna sustatzeko duten eskumena Sakanako Mankomunitateari ematea. Zehazki, 14 udal dira pauso hori egin dutenak. Erabaki horiek hartuta, ilbeltzaren 29an egingako batzarrean Sakanako Mankomunitateak Berdintasun Zerbitzua sortzea erabaki zuen. Erakundeko buru David Orozek esan digunez, martxorako nahi lukete zerbitzu berria martxan. "Nafar Lansarerekin hitzarmena egingen dugu haien zerrendatik berdintasun agentea kontratatatzeko", gaineratu du Orozek. Hitzarmenaren zirriborroa adostua dute aldeek eta sinadura besterik ez da falta.

Berdintasun Zerbitzua martxan jarri aurretik, Sakanako Mankomunitateak emakumezkoen

eta gizonezkoen arteko berdintasunari buruzko diagnostia egin zuen joan zen urtean. Garagarzaroan inkestak zabaldu zituzten Sakanako Mankomunitatearen eta udalen web orrien bidez. Jasotako erantzunak baliatu dituzte. Baita hainbat sakandarrerekin egin izan dituzten elkarrikeria sakonak ere. Eta tailer irekiak eginez osatu zuten Sakanako emakumezkoen eta gizonezkoen egoeraren inguruko diagnostia egiteko lana. Berdintasun teknikariak eta Sakanako Mankomunitateak hura izanen dute lanerako abiapuntua.

Berdintasun Zerbitzu horretan Altsasu ez beste, gainerako udal guztiak, hamalauak izanen dira. Altsasuko Udalak Berdintasun Zerbitzua duela 26 urte du eta, horregatik, ez da sartuko. Orozek aurreratu digunez, Sakanako eta Altsasuko zerbitzuek koordinazio estua izanen dute.

GOIZERO 10:00-12:00  
EGUN ON SAKANA

10:00 Prentsa eta eguraldia

10:15 Batetik bestia

10:20 Eguneko albisteak

10:45 Hizketan

11:20 Sarea: Aralar eta Karrape irratikoekin

11:55 Bukaera

107.3 FM  
**beleixe**

DENBORALDI BERRIAI

ZUZENEAN

ERREPIKAPENAK 14:00ETAN

ONLINE  
ENTZUTEKO  
GUAIXE.EUS



Aritz Ganboa de Migel Pirinio elurtuak atzean dituela. WWW.BIDEAKDOKUMENTALA.EUS

# Ondararako gazta bideak

Mendian barna lasterka eginez Aritz Ganboa de Migelek Arruazu eta Izaba lotuko ditu lastailean, egun bakar batean, berak egindako gazta bat aldean duela. Erronka horren bidez “gure ondare material eta ez-materialari balioa eman” nahi diote

## ARRUAZU

Aritz Ganboa de Migel arbazuarra artzaina da, gaztak egiten ditu. Eta mendi-lasterketetan aritzen da. Natura, landa eremua eta kirola batzen dituen erronka egiten du aurten: bere artzain jatorria diren bi herriak, Arruazu eta Izaba, mendian barna laster eginez lotuko ditu. Behin Izaban, berak motxilan eramandako Idiazabal jatorri izendapeneko gazta Erronkariko jatorria duen beste gazta batekin trukatu du. Lastailean egiten du erronka. Baina ez da erronka pertsonala, kolektiboa baizik. Inguratzen gaituen giza, kultur, ingurune, paisaia, ekonomia, historia, gastronomia... ondarean oinarrituko da. Azken horiei behar duten balioa ematea baita erronka horren ardatza, lasterketarekin batera, *Bideak* izeneko dokumentalean jasoko

dena. Hartan jende askok bere burua islatua ikusiko duela espero dute sustatzaileek.

Erronka zabaltzen hasiak dira eta Ganboak “lehenik eta behin” eskerrak eman ditu, “benetan. Aurretik ere, baina eta hau guztia publiko egin ondoren Sakanatik, baita kanpotik ere, zenbat mezu jasotzen ari garen laguntza eskainiz, eta animo mezuak. Hasieran halako oihartzunik ez genuen espero. Benetan, esker-tu beharra daukat”.

Albi gaztandegiko artzain arbazuarrak Beleixe Irratian (FM 107,3 edo [www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)) adie-

**ERRONKAK BALIOA EMAN NAHI DIE ARTZAINZARI ETA HARI LOTUTAKO BALIOEI**

razi duenez, “erronka esaten erraza da, egiten ez da hain erraza”. Esaldi bat dago erronkaren oinarrian: izan zirelako gara, eta garelako izanen dira. “Bi gazten artean historia eta istorioa daude” gaztigatu du Ganboak. Bata, berea, Idiazabal jatorri izendapena ordezkatzen du. Izabako Marengo Bordakoak, berriz, Erronkari jatorri izendapena. “Gure artzaintza ereduaren ezinbestekoa den latxa ardiak gure inguruan milaka urte daramatza eta egindako lanagatik daukagu daukagun natur eta kultur ondarea, guztia”. Erronkaren bidez Ganboak “landaremu hori eta han opatzen ditugun baliabide guztiei baliagarritasuna” eman nahi die. “Beti ere, begiratu zer izan garen, zer garen eta zer izan nahi dugun”.

Arbazuarrak gaztigatu du berea ez dela bakarkako erronka bat, kolektiboa baizik: “hausnarketa txiki bat egin nahi dugu. Hau nire istorio bat bezala hasi da, baina, azkenean, nire istorioa denona da. Nire istorioaren parte ez litzateke besteen istorioaren parterik gabe. Eta aldrebes. Herri bat, komunitate bat, hizkuntza bat, ondarea... balioa ematea”. Berak egiten duen mendi-lasterketa hori aipatutako guztiei “aurpegia jartzeko” balioko du. “Harrikazoa” den erronkan “Sakana garatzenek eman didan ikuspegiak eta nire jatorriari balioa emateko nire buruak zuen beharrak bat egin dute”.

## Erronkaren abiapuntu bat

Ekimenak bi abiapuntu ditu. “Bat nire istorio pertsonala da. Hor dago nire jatorria. Bai ogibide, bai bizimodu, bai lurralde aldetik, Izabak eta Arruazuk ordezkatzen dute. Nire amaren partetik Izaba eta aitaren partetik Arruazu. Ogibide aldetik, bi familia horiek, nahiz eta gero garapen desberdinak izan, artzaintza izan dute abiapuntu. Errealitate hori euskal herritar asko edo gehienona da. Artzain herri bat izan gara eta hortik eraiki dugu gaur egun daukagun herria. Eta artzain izaten jarraitzen dugu”.

Geologia ikuspegitik tolestura berekoak dira Aralar eta Pirinioak. Baina geografikoki ez. “Tolestura hori zeharkatuko dut. Erakutsi nahi dudana da denok garela historia horren parte eta historia horrek ibilbide desberdinak eman ditu, iritsiera desberdinak: badaukagu hiria, herria, herri mota desberdinak, eskualdeak... Hor ondatze bat eraikitzen gai izan gara eta balioa eman nahi diogu”. Hori izan da erronkaren abiapuntu bat.

## Eta bestea

Bigarren abiapuntua *Sakanan bizi eta lan* leloan du oinarria. “Horren harira oso dinamika interesgarria sortu zen, ni ere asko busti nauena: garapen es-

trategikorako plana da. Eskualde, herri bezala, gutxi gorabehera lortu dugu zer izatea nahiko genukeen. Horretarako, oso garrantzitsua izan da zer izan garen pentsatzea eta zer nahi dugun horretan ere pentsatzea. Hor makina bat lan egin dugu. Sakana, lehenbizi, sakandarrondako balio bezala jarri dugu. Baina, gainera, konturatu gara balio horiek beste komunitateekin, beste herriekin, Euskal Herriarekin eta munduarekin ere partekatutako ditzakegula. Horrek bizia eman diezaioke Sakanari. Beti ere, Sakanak bizia baldin badu”.

Horrek markatu egin zuen Ganboa eta erronkaren bidez “ondare hori” bilatuko du. “Ondare horretan zer baliabide dauzkagun: giza-, teknika-, jarkintza-, azpiegitura-baliabideak. Hori guztia komunean jarri. Eta komunean zeinek jartzen du hori, pertsonak. Pertsonok gure lan-, militantzia-, giza harreman-, kirol-esperientzietan bat egiten dugu. Hor giza-baliabide batzuk artikulatzen dira eta horiek gabe erronka hau ezinen da egin”.

## Ondarea jaso

Aipatutako ondarea jasotzeko dokumentala egiten dute. Haren haria Ganboaren erronka izanen da. “Baina barruan dauden eduki guztiak eraikitzen joanen eta jaso egiten dugu”. Horretarako, web orri bat erabiliko dute. Hartan jasotako istorioak eta ondarea agerian utziko dute: “ikusentzunezko pilulen bidez ondarearen inguruko bilketa lan hori ezagutaraziko dugu: nire prestakuntza (elikadura, kirola, fisioterapeuta). Kasu horretan atzean dauzkagun baliabideak ezagutaraziko ditugu. Sakanaren kasuan, adibidez, Xalok-ek bat egiten du gurekin. Haiek izanen dira nire prestakuntzaren arduradunak. Haiek gabe ezinen nuke halako erronkarik planteatu”.

Ganboak ibilbidean opatuko dituen istorio eta bitxikeriak ere zabalduko dituzte. Esaterako, Aralarko larretan artzainek pilotan jokatzen zutelako. “Amaia Palauk Araiz ibarreko hizkuntzaren ikerketa egin zuen, baina inguruko ohitura eta usadioen artean ikusi zen eta, oraindik, hor dago ondare bat. Eta zein lotura duen pilotak gure eskualdean, Euskal Herrian, eta gure mendiko larreak eta artzaintzak. Uztarketa hori ere erakutsiko

**'BIDEAK' DOKUMENTALA FACEBOOK, YOUTUBE EDO INSTAGRAM BIDEZ SEGI DAITEKE**





Aritz Ganboa eta Xabier Unanua. WWW.BIDEAKDOKUMENTALA.EUS

dugu". Edota jentil-harriak. "Aralar, gure ingurunea, jentil-harri gehien dituen inguruetako bat da. Nola oraindik harri-jasotzeak kirol forma duen. Erronka horrek duela milaka urtetik erakarri gaitu". Jakina, bi gazten jarraipena egingen dute.

#### Talde lana

Horiek guztiak web orrian ikusentzunezko moduan agertzen joanen dira. Horretarako, talde lanean aritu beharko du Ganboak. "Helburua dokumentala izanen da. Dokumentalean nire helburu pertsonala izanen da erronka betetzea. Baina, gainera, istorioak ere helburu izanen dira. Eta istorio horien jarraipenerako jendearen elkarlana izanen da. Azkenean hau mugimendu bat bihurtzea nahi dugu. Mugimendu horrek, azkenean, hainbat helburu izanen ditu, nik erronka bete edo ez, helburu horiek euskarri batean bilduko dira, dokumentala. Birtartean web orritik jarraipena egingen da".

Ganboak gaztigatu du horren guztiaren atzean ez dagoela bera bakarrik. "Dokumentala denez helburua, Xabier Unanua irurtzundarraren ekarpena. Buruan nuena kontatu nion eta berarekin partekatzean forma hartu zuen. Proiektuan bai edo bai sartuko zela esan zuen. Aurrera egiteko prest zegoela. Haren lana honen atzean ere badago. Xalok bera ere, nik beharko nuelako prestakuntza bat. Euren burua eskaini zuten". Eta ekimenarekin bat egin dute Idiazabal eta Erronkari gazten jatorri izendapenak, Reyno Gourmet edota Sakanako Garapen Agentzia. "Honen atzean bada go zilegitasun bat, ni gaintitzen nauena. Dagoeneko ezin dugu nire proiektuaz hitz egin. Hitz egin behar dugu *Bidean* dokumentalaz, eta han Aritz bat izanen da. Eta espero dut bat oso txikia".

Beti esan da artzainek pentsatzeko beta asko dutela eta *Bideak* dokumentalaz ari garela atzean hausnarketa sakona duen proiektu batez ari garela konturazten gaitu Ganboaren jardun zorrotzak.

#### Diru bilketa

Eduki horiek guztiak egiteko dagoeneko lanean ari dira. "Baina horrelako lan bat aurrera ateratzeko dirua ere ezinbestekoa da". Dagoeneko inguruko entitateetara jo dute proiektua ezagutarazteko. "Zati bat egin dugu, orain bigarren fasean sartuko gara". Egitasmoarekin bat egin nahi duen jendeari protagonismoa eman nahi diote. Esaterako, pertsona bat zati batean Ganboarekin korrika joan daiteke, "bere kirol gaitasunak aukera hori ematen diolako. Baina, agian, horrela parte hartu ezin duen pertsona batek diru bilketa kolektiboa edo crowdfunding -a ere badago [www.bideakdokumentala.eus](http://www.bideakdokumentala.eus) web orriaren bidez.

Egindako diru ekarpenaren arabera onura gehiago izanen ditu emaileak. "Proiektuak ekonomikoki bultzada behar du. Gero eta indar gehiago baldin badugu, gauzak, seguraski hobeki egingen ditugu. Benetan lan txukun bat egiteko, jendearen diru-ekarpenak ezinbestekoak izanen dira".

Azken dei pareta ere egin ditu. Batetik, "nola edo hala, edozeinek bere burua erronka honetan ikusten badu, ekarpena eginez eta elikatuz, gurekin bat egin dezala. Ez dezala inolako lotsarik izan. Dena delakoa dela ekarpena egiteko modua. Hori indarra izanen da".

Bestetik, "sakandarrei deia Pirinioetako eta Erronkariko jendearekin bat egiteko. Pirinioak benetako beharrak ditu. Gaur egun utzien dagoen Nafarroako

eskualdeetako bat da. Uste dut gure eskualdeak eraikitzen ditugunean ez dugula ikuspegia galdu behar, beste eskualdeekin batera eraikitzen dugu, bestela, ezinen dugu aurrera egin. Beraz, gure eskualdeak, Nafarroak, Pirinioei zer eskaini diezaiokeen pentsatzen hasi behar dugu. Euren bidea egiten ari dira. Hori errespetatu behar da. Batu gaitzen eta ea erronka hau Izaban bukatzen denean sakandar pila batek bat egiten dugun egun horretan".

## Lasterketa ibilbidea zehazten

Ganboak aurreratu duenez, Arruazutik Aralarerantz joko du eta handik Izabara arteko bidea onduko du, berak egindako gazta aldean duela. Lastailean, egun bakarrean egingen du ibilbidea, gelditu gabe. "Udarako jakinen da zein ibilbide egingen dudan, eta zenbat denbora jarriko diodan nire buruari erronkan ibilbide hori egiteko". Azaldu duenez, erronka prestatu bitartean "elikatzeo bertako eta garaiko produktuak erabiliko ditut. Gure baserriarrek sortzen dituzten produktuak. Horiekin nutrizionistak nire elikadura zainduko du. Horrela, produktu horien atzean dagoen lanari, paisaiari, balioa emanen diogu".

## 'Gurserako bidean' dokumentala aurkeztu dute

Frantziako kontzentrazio-eremura eraman zituzten nafarren memoria ardatz hartuta egin da

SAKANA

Nafarroako Gobernuak Iruñean egindako bi emanaldiren bidez *Gurs-erako bidean* dokumentala mustu zuen asteartean. 1936ko estatu kolpearen ondoren kontzentrazio-eremu hartan bildutako nafarren historia erreparatzen du dokumentalak. Horretarako euren senideen lekukotzak jasotzen ditu. Besteak beste, Martin Soler altsasuarrarena. Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanen kontseilari Ana Ollok esan duenez, ekimen horren bidez "Nafarroako Gobernuak errepresio frankista jasan zuten pertsonen memoria eta duintasunaren aldeko konpromisoa berretsi nahi du". Bukatzeko, eskerrak eman zizkien dokumentalerako testigantzak eskaini dituzten pertsonen eta Gursen omenaldia egiteko aukera erraztu zuten pertsona eta elkarte guztiei.

Foru administrazioaren Baakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusia datozen hilabeteotan Nafarroa osoa zeharkatuko duen emanaldi-egutegia lantzen ari da. Fantiako Gurs herriko kontzentrazio eremuan 28 sakandar izan ziren eta ibarrean ere hura ikusteko aukera izanen da.

**Sorgiñak**  
taberna

LAKUNTZA  
948 576 357

Ongi pasa  
Santa Agedetan!

**Hijos de Goikoetxea**  
Tel. 948 467 317 - 948 562 341 - Gettoki auzoa 11 - ALTSASU

Ogiaren artisauek  
**PORTUKO** okindegia

goza dezazuela  
Santa Agedetan

ETXARRI ARANATZ: 948 460 988  
ALTSASU: Denda: 948 563 822 - Lantegia: 948 467 153



AHTren kontrako kolektiboen prentsaurrekoa Europako Parlamentuan. UTZITAKOA

## Bruselaraino AHTren kontrako mezuarekin

Arabako eta Sakanako plataformetako kideak bi egunetako kontaktu erronda egin dute. Garraio Batzordearekin egindako bileran jakin dutenez, Hego Euskal Herriko AHT egitasmoetarako dirua txikitu egingen du Europak, "lanen atzerapenagatik"

### SAKANA

Europako Parlamentura Abiadura Handiko Trenak (AHT) sortzen dituen kalteak erakutsi eta haren alternatiba tren soziala dela azaltzeko, Bruselan izan ziren herenegun eta atzo Arabako eta Sakanako plataformetako kideak eta David Lopez de Arbina eta Euskal Herriko Unibertsitateko David Hoyos eta Gorka Bueno irakasleak.

Hainbat euro-parlamentari-ekin hitz egiteko aukera izan zuten bi egunetan. Haiek azaldu zieten, "legalizatutako ustelkeria" dago: "Europako Kontu Auzitegiak adierazi duenez, Europar Batasuneko 14 trenbideetatik 9 ez dira errentagarriak".

Lanetan gutxienez 10 langile hil direla eta lanetan dagoen prekarizazioaz gaztigatu zuten.

Eta Europako Garraio Batzordearekin bilera egin zuten, AHT proiektuen egoeraren berri lehen eskutik jasotzeko eta Nafarroan eta Araban dagoen gizarte eta akademia kezka azaltzeko. "Bileran esandako zenbait kontuk AHT proiektuen Espainiako eta Nafarroako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak emandako informazioa kontraesanetan jartzen dute. Horietako bat litzateke AHT bidez ez dela merkantziarik garraiatuko. "Europako garraio planifikazioak ez du Euskal Y-koa bere baitan hartzen, bidaiariendako da". Irakasleek

batzordekideei azaldu zieten tarte horretarako aurreikusitako bidaiari kopurua "ekonomia, gizarte eta ingurumen errentagarritasunaren mugatik behera" dagoela. Batzordekideek azaldu zuten, publiko egin ezin duten kostu-onura azterketetan oinarritzen dira haiek. AHT-ren inguruan dagoen gardentasun falta salatzen zuten. Aldi berean, jakinarazi zuten Batzordekideek jakinarazi zieten, "AHT erakitzeke diru-laguntzak murriztuko dizkio Europak Espainiari" eta horretarako arrazoia "obretako atzerapenak" dira. Europako Kontu Auzitegiak AHT-ren eta abiadura handiko trenen inguruan argitaratutako txostenak trenbide berriak egin beharrean egungo korridoreak hobetzea lehenesten du. Horretaz galdetuta, batzordeko kideek erantzun zuten: "ez dugu zuek bezala ulertu".

### Mobilizazio egutegia

Bruselan hiru deialdi jakinarazi zituzten: otsailaren 16an, larunbatean, 17:00etan kontzentrazioa Tafallako tren geltokian, martxoaren 30ean, manifestazioa Altsasun eta maiatzaren 18an, manifestazioa Gasteizen. Sakanatik Tafallara joateko autobusa antolatuta dute. Ohiko tokietan eman daiteke izena.

### ALTSASU

Altsasuko Udalak 7.723.563,42 euroko aurrekontua du aurten, Aita Barandiaran adinduen egoitza eta musika eta dantza eskola barne direla. Ilbeltzaren 30ean egindako bilkuran taldeek aurrekontutako 13 zuzenketa onartu ziren. Aurrekontuek Geroa Bairen eta PSNren aldeko botoa izan zuten. UPNk kontrako botoa eman zuten.

EH Bilduk udalaren "kudeaketa pertsonalista eta opakoa" salatu zuten. Aurrekontutako aurrekontu proiektua "errealitate eta herriaren beharrezkoetatik urrun" dagoela gaineratu zuten. Udalak Foruzaingoarekin duen hitzarmena eta isunak Geserlocal enpresak kudeatzea ez du begi onez ikusten eta lan hori kontratatutako pertsona batek egitea eskatu zuten. Arkitektoa kontratatu beharrean udalaren lanpostu hori sortzearen alde agertu zen EH Bildu. Euskarara, pertsonal kudeaketa eta parte-hartze arloetan udalaren jardunarekin koalizioak ez du bat egiten. Alkateari informazioa ez ematea eta planifikazio falta egotzi zion. Guztiagatik abstenitu egin zen.

EH Bilduk eta Goazen Altsasuk aurrekontua lantzeko beste modu bat eskatu dute. Goazen Altsasutik zirriborroa landu aurretik denek eta sentsibilitate guztiak ordezkatzea eskatzen du. "Lanerako beste modu bat" eskatu dute, "kontinuista eta pertsonalista ez dena. Aurrekontu zirriborroa beste taldeen ekarpenekin hobetu da". Foruzaingoarekin hitzarmena "bitan ordaintzea" dela gaztigatu dute Goazen Altsasutik. Parte-hartze aurrekontuendako diru-sail bat izatea eskatzeko. "diruzaintzako gerakina erabiltzean adreilua eta erosketak egin daitezke, gizarte arlorra ezin da bideratu". Azkenik, plantilla organikoko mailen artean dauden desberdintasun handiak aztertzea eskatu zuten. Arkitektoa plantillakoa izatea eskatu zuten Goazen Altsasuk. "Zerga bidezko 40.000 euro gehiago gehitu balira gizarte gastura gehiago bideratzeko aukera legoke, baina ez da egin". Goazen Altsasuk kontra bozkatu zuten.

### Kontratazioak

Javier Ollo Martinez alkateak jakinarazi zuenez, udalak ez du zergarik igoko eta Toki Ogasunen Funtsetik udalak % 4,5

gehiago jasoko du (2.197.662,39 euro). Udalak aurten Nafar Lansareren 38.430 euroko diru-laguntza jaso du eta horrekin urte erdirako zortzi langabetu kontratatuko ditu. Haietako bat Kultura Zerbitzuko laguntzaile gisa lan egingen dute eta, ondorioz, liburutegia goizez zabalduko da. Eraikin berrira lekualdatu zenetik buruan zegoen ideia da hori. Eskualde liburutegia da Altsasuko eta goizeko zerbitzua ematearen garrantzia azpimarratu du Ollok. Kontratatu den beste pertsona bat udaletxean ariko da, Zerbitzu Orokorren Sailean, han lan egiten duen langile bat hainbat arlotan trebatzen den bitartean bere hutsunea betetzeko. Gainontzeko sei langabeak Lanen Zerbitzuan ariko dira: lau zerbitzu anitzetan, lorezaintzan bat eta bestea margotzen.

Bestetik, Nafarroako Kutzaren Fundazioaren 8.600 euroko diru-laguntza Emakumearen eta Berdintasun Sailera bideratuko du udalak. Udalak bere kontuetan udaltzain izanen diren soldadak ordaintzeko partidak aurreikusi ditu. "Egun egoera konplexuan dagoen zerbitzua berreskuratzeko apustu sendoa egin dugu aurrekontuen bidez", gaztigatu zuten alkateak. Bestetik, Altsasuko Udalak Sakanako Mankomunitateari joan den urteko diru ekarpen bera egingen dio. Hori bai, ibarreko erakundeak, dagozkion txostenekin, dirua zertara bideratzen duen justifikatu beharko du.

Burunda mendebaldeko Oinarritzko Gizarte Zerbitzuarik Altsasuko Udalak egingen dion diru ekarpena handitu egingen du. "Kontuan izan behar da 2017an jarritako argatik joan den urtean gutxiago pagatu genuela", argitu du Ollok. 303.856,01 euro horretarako izanen dira. Aita Barandiaran adinduen egoitzara 129.746,81 euro jarri ditu aurten udalak, joan de urtean baino 27.388,68 euro gehiago. Bilkura onartutako zuzenketa batekin 17.500 euro gehiago bideratu ziren. Gainera, aurrekontuan moldaketa egin eta beste 50.000 euro gehiago adinduen egoitzara bideratzea onartu zuten udalak. Guztira 94.888,68 euro gehiago izanen dira Aita Barandiaran egoitzarako, alkateak argitu duenez, "han dauden adinduen eta langileen kalitatea hobetzeko". Bestalde, 19.520,66

**Olga Martínez de Lagrán**  
PSIKOLOGIAN DOKTOREA

Psikologian doktorea  
- Minaren tratamendua  
- Ansietatea, depresioa, beldurrak  
- Masaje psikoemotionala

olgamaitagami@yahoo.es  
**639 408 118**

**Txooooo!**

**JUANLUZENEASAGARDOTEGIA**

**MAIATZERA ARTE txotx denboraldia zabalik**

**ODERITZ**  
948 604 571 | 680 652 183

# Udalak bake epaitegia tokiz aldatuko du

Garbitoki eraikinetik Altsasuko kirol elkartearen taberna izan zen eraikiner pasako da. Aurtengo udal aurrekontuan onartutako inbertsioetako bat da hori. Baina nagusia Bakea eta Amaia kaleetako sareak eta zorua berritzeko lanak izanen da

eurotan hazi da musika eta dantza eskolara bideratutako kopurua, 233.287,54 eurotan geldituz.

## Sailez sail

Kirol erakundeendako diru-laguntza deialdian 20.000 euro banatuko ditu udalak, 2.000 gehiago. Aldi berean, kirol taldeekin hitzarmenek segida izanen dute, haiek udal kirol eskolak kudea ditzaten. Azken horien artean berritasuna da triatlloi udal eskola kudeatzeko egindako hitzarmena. Gazteria Batzordearen eta gazte gunearen jardueretara bideratutako diru-poltsa ere handitu da.

Kultura Sailaren barruan ikastetxeendako 25.000 euroko diru-laguntza deialdia jaso da. Gizarte Ongizate Sailak gizarte kooperazioan eta nazioarteko larrialdi laguntzetarako ari diren dirua emanen du ere, hitzarmen bidez edo deialdi publiko bidez. Irabazi asmorik gabeko erakundeendako diru-poltsa 5.000 euro handituko da eta 6.000 gizarte kooperaziokoa. DYArekin udalak duen zerbitzu-kontratua pagatzeko 3.500 euro daude. Jubilatutako elkartearendako diru saila 3.000 euro hazi da aurtengoa, "urteetako eskaerari erantzunez". Etxegabeen aterpea kudeatzeko diru gehiago jasoko dute.



Bake epaitegia izanen den lekua.

Hirigintza Sailean udalarendako aholkulari berria kontratatzea aurreikusten da. "Gaur egun udaletxean astean behi egotetik astean bitan egotera pasako dira. Beti ere, zerbitzua eta haren eraginkortasuna hobetzeko", argitu du alkateak. Sail horretan hainbat txosten pilatu dira eta horiek aztertzeke urte erdirako pertsona bat kontratatuko du udalak. Udalak hirigintza plan berria egiteko asmoa du eta horretara 245.000 euro bideratuko ditu. Baina %80 diru-laguntza jasotzea espero

da. Apirilera plana eginen duen taldea kontratatzea espero dute udalean. "Aurretik garatzen hasi ziren hirigintza sektore batzuetan arazoak daude eta plan berriak horiek konpontzeke tresna eta laguntza izanen da", Olloren arabera.

## Inbertsioak

Amaia eta Bakea kaleko zati bateko sareak eta zorua berrituko dira aurtengoa. Plan horien barruan ez da Zumalakarregi plazako zorua berritzea jasotzen. Horregatik, udalak aurtengo

aurrekontuan 170.000 euro bideratuko du, gerora Nafarroako Gobernuak emanen duena. Kopuru horri udalak diruzaintzako gerakinetik ateratako 315.702 euro eta joan den urteko aurrekontuetan jasotako 17.998,75 euroak gehituko zaizkio. Guztira 503.700,75 euro.

Zelandi eskola publikoko atea egungo segurtasun araudira egokitzeko, eta beraz, aldatzeko 25.000 euro bideratuko dira. Eskolako beheko solairua ere margotuko dute. Ollok aurreratu duenez, Hezkuntza Departamentuaren diru-laguntzen deialdira aurkeztuko du lan hori udalak. Ikastetxe bereko gela batzuk margotzeko diruzaintzako gerakina erabiliko du udalak.

Poltsa horretatik ateratako diruarekin, urtero moduan dermioko bideak eta herriko zenbait kaleetako zorua konpontzeko lanak eginen dira. Azken horiek, herriguneari ez dauden baina etxebizitzak dituzten tokietarako kaleetan eginen dira. Ondare ez-materialeko lekukotzak jasotzeko lana ere eginen da. Baita berriki zaharberritu den plazako eskulturaren eskaneatzea ere. Aurrekontu parte-hartzaileak izan zituen aurreneko Altsasuk joan den urtean eta finkoa ez den karpeta bat erosi zuen udalak horretara bideratutako 20.000 euroekin. Aurtengoa egitasmoak segida izanen du eta kopurua bikoiztu eginen da.

Bake epaitegia Garbitoki eraikinetik orain arte Altsasu kirol taldearen taberna izan den eraikiner aldatzea erabaki du udalak. Bake epaitegi berria eraikineraren beheko solairuan egokitzeko 14.935,93 euro daude. Lanak aurtengoa egin nahi dituzte. Eta, bide batez, Garbitoki eraikineraren beheko solairuan dagoen

udal ludotekak solairu guztia berarendako hartuko du.

Altsasuko erraldoien eta buruhandien konpartsako kideen eskaerari jaramon eginez, udalak bi erraldoi berri erosiko ditu. "Altsasuko kultura eta tradizioekin zuzeneko lotura duen bikote bat erostea da", azaldu digu alkateak. Kultura batzordean hartuko da erabakia. Horretarako, 14.000 euro daude.

Altsasuko Udala ferietako azokarako standak erosteko inbertsioa joan den urtean hasi zen egiten, 10 erosi zituen eta aurtengoa beste 10.000 euroekin segida emanen dio erosketari. Udal eraikinetan jarriko diren desfibrilagailuak erosiko ditu udalak. Halako bat dagoeneko Iortia kultur gunean dago. Gainera, haur eskolan itotzearen kontrako tresna jarri zen. DYA fundazioak horien erabilera langileak treratu zituen.

UPN ez beste, talde guztiek onartu zuten Marino Aierra Redinen *No me avergonce del evangelio* liburua berrargitaratzea eta, horretarako, 7.000 euro bideratzea. Liburuaren egilearen izena hartuko du egoitza berriak. Etxegabeen aterpeko lanak despeditu dira. Hura janzteko udalak 22.230 euro bideratuko ditu eta diru horren % 70 diru-laguntza bidez jasotzea espero du. Legegintzaldia despeditu aurretik etxegabeen aterpe berria martxan egotea aurreikusten du alkateak.

## UDALAK URTE ERDIRAKO ZORTZI LANGABETU KONTRATATUKO DITU AURTEN



## Zeure denda kudeatu nahi duzu Altsasun?

La Vitorianak bermatutako negozio eredu baten ziurtasuna eskaintzen dizu, mami askorekin eta esperientzia handia duen gertuko zentral baten laguntzarekin.

Zuk ekimena jartzen duzu eta guk inbertsioa eta esperientzia. Hasiko gara?

Harremanetarako:  
tiendas@lavitoriana.com / 945 278 488  
☎ 610 765 142



La Vitoriana





## Kukuerreka elkarteak mustuta

Larunbat eguerdian mustu zuten 134 bazkide dituen eta Baratzekobide plazako 4. zenbakian dagoen elkarte berria, Kukuerreka. Aurretik dauden Amandrea, Otai, La Encina, Zubeztia eta Beti laten elkarteak batu zaie. Beste elkarteetako ordezkariak, Javier Olló

Martinez alkatea eta makina bat altsasuar izan ziren mustutze ekitaldian. Ehun bat bazkide elkartu ziren bazkaltzera. Bezperan sukaldia erabiltzeko ikastaroa izan zuten. Elkartetik jakinarazi dutenez, bazkide egiteko aukera badagoela jakinarazi du.



## Lan eta jan

Txerri hiltzearen inguruan La Encina elkarteak antolatutako ospakizunak erabateko arrakasta izan zen. Jesus Cidoncha lehendakariak duela 13 urte proposatuta abiatu zen ospakizuna, garai bateko txerri-hiltzearen inguruan sortutako festa gogorarazteko. Lehen urtean 56 izan ziren bazkaltzera izena eman zutenak, larunbatean 120. Elkarteak ez zen arimarik sartzen.



Izena emateko: [ssbirurtzun@gmail.com](mailto:ssbirurtzun@gmail.com) e-posta edo 948 600 694 telefonoa.

## Guraso lanbidean trebatzeko ikastaroa antolatu dute

Saioak otsailak 14an eta 28an eta martxoaren 13an eta 28an izanen dira. Beharrezkoa da izena ematea

IRURTZUN / ARAKIL

Gurasoen beharrei erantzuna emateko asmoz, emozio-heziketa eta *gurasotasun positiboa* haurtzaroan eta nerabezaroan ikastaroa antolatu dute Irurtzun aldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak eta Atakondoa eskolako guraso elkarteak, ikastetxearen eta udalaren laguntzarekin. Iosune Zabala teknikariak azaldu digunez, “zientzia-ikerketak argi erakutsi du haurrek gorputz eta buru garapen osasuntsua izan dezaten, elikadura egokia izateaz aparte, oso garrantzitsua dela onspen,

errespetu, afektibitate eta estimulazio giro batean hazi eta hezi daitezela”.

Zabalak argitu duenez, “pertsonek arteko harremanek burmuinaren funtzioa eta egitura modelatzen dituzte; beraz, haurtxoak bera zaindu, estimulatu, babestu eta hezteko nahikoa gaitasun duen heldu bat behar du ondoan”. Bestela, eragin negatiboa izan eta “etorkizunean bere ikaste-prozesuan eragina izanen duten ondorio neurologikoak sor daitezke”. Irurtzun kultur etxean izanen da ikastaroa, 19:00etan hasita.

## Elkar Ekinez, ikastolak familiendako espazio

Iñigo Aritza ikastolan eta Txio-ka haur ikastolan konpetentzietan oinarritutako hezkuntza proiektuaren aterkia da Kabi proiektu pedagogikoa, haurrak eurak izaten, elkarrekin bizitzen, komunikatzen, ikasten eta pentsatzen eta egiten eta ekiten ikastea helburu duena. Kabi proiektuaren barruan, Elkar Ekinez eskaintzaren bidez, ikastola familiendako espazio bihurtuko da. Hala, gurasoek eta seme-alabek disfrutatzeko eta kalitatezko denbora pasatzeko eskaintza egin da.

Elkar Ekinez eskaintzaren bidez, ikastolak espazioa eta materialak familien esku utziko ditu, familiak bertan modu autonomoan aritzeko. 0 eta 6 urte arteko seme-alabak dituzten familiei zuzenduta dago, baina proposamena adin guztietako haur eta helduek disfrutatzeko modukoak dira, familian jolastu eta disfrutatzeko. Elkar Ekinez eskaintza baliatu nahi duenak ostiralera arte du izena emateko aukera, 948 562 951 telefonora hots eginez edo [jone@ingoarritza.eus](mailto:jone@ingoarritza.eus) e-postara idatziz.

Heldu den asteartean, 17:00etan, *eraikuntzak, argiak eta itzalak* saioa izanen da. Martxoaren 12an asteartean sukaldaritza eta maiatzaren 14an, asteartean, urarekin espermentatuko da.

## Mariñelarena preso bisitatza joaten zirenen istripua

Luis Mariñelarena Gartzandiako preso A Coruña Curtis espetxean dago, 650 km-tara. Hura bisitatza joaten ziren bi lagunek istripua izan zuten Kantabrian igande goizean. Kazkabarrarekin autoak irristek egitean, beste auto bat jo eta ondoren bide bazterreko babes hesia jo zuen. Bi etxarriarrak onik atera ziren eta preso bisitatzera lortu zuten.

Euskal preso politikoen senideak elkartzen dituen Etxerak erakundeak jakinarazi duenez, urtea hasi denetik, 33 egunetan, senideek eta lagunak presoak bisitatza egindako joan-etorrietan lau istripu izan dituzte. Etxerat elkartetik adierazi dutenez, “zoriak ekidin du ezbehar horren ondorioak larriagoak ez izatea. Istripu horien erantzukizuna dispertsio politikaren kudeatzaile eta bermatzaileena dela. Astebururo, bisita dagoenean, euskal preso politikoen senide eta lagunak bidaia luzeak egitera behartuak daude; hauek espetxera iristeko egin behar duten distantzia, errepidearen egoera eta ezarritako ordutegiei erreparatu gabe”.

Etxerat-etik euskal gizarteari, eragile eta erakundeei deitu diren mobilizazioetan parte hartzeko deia egin die, “dispertsioarekin behingoz bukatu arte”. Gaur Etxarriko plazan 20:00etan.

## Nafarroako Gobernuari tortura ikertzeko eskaera

Euskal Autonomia Erkidegoan egindako ikerketa Nafarroan egitea eskatu zuten larunbatean torturaren 55 biktimak, tartean sakandarrak. “Kezkaz” hartu dute auzitegiek ikerketa hori Nafarroan egitea debekatu izana. “Erabat onartezina eta oso mingarria da egia argitara atera dezakeen ikerketari ezarri zaion blokeoa”. Larunbatean dei egin zieten torturak jasan dituztenei Nafarroako torturatuen sarera batzeko. Bestetik, gizarteari babesa emateko eta haien egitasmoetan parte hartu dezaten eskatu dute. Esaterako, asatezkenean, torturaren kontrako eguna da Euskal Herrian, eta protestak antolatu dituzte.

## EAJk Altsasuko alkate Olloren lanari aitortza egin dio

Eusko Alderdi Jeltzaleak (EAJ) 5.000 alderdi kide eta zale bildu zituen Barakaldoko BEC-en. Eta aparteko tokia izan zuen bertan Javier Olló Martinezek. Udaretik Altsasuko auziari aurre egin diola gogoratu zuten. Ollók udaretik Altsasu bakearen eta elkarbizitzaren alde egindako lanagatik ezagutarazteko egindako lana nabarmendu zuten.



Olatzagutian aurten zazpi gaztek osatu dute kintada.



Kinto olaztiarrek txarangaren laguntza izan zuten eskean aritzerakoan.

# Burundan kintoak nagusi

Olatzagutiko kinto ospakizunak despeditzen ziren egun berean hasi ziren Altsasuko kintoan euren ospatzen, bihar arte. Asteburuan Bakaikuko, Iturmendiko, Urdiaingo eta Ziordiko kinto ospakizunak izanen dira



Olatzagutiako kintoak dirua biltzeko poltsan denetarik sartu zuten azkenean.



Pantxika astoak eraman zituen kintoek bildu zituzten 20.994 euroak Altsasan.



Altsasuko kinta ondoren salduko zuten opil bat haiek eramateko makilan jartzen.



Larunbatean, zortzikoen ondoren, 05:00etaraino musika jarriko dute Gure Etxean.



Kintoak aginte makila jaso ondoren hasi ziren opilak saltzen.



Altsasuko auzikoeikiko elkartasunez, bihar, 13:00etan, zortziko handia lortia parean.



Kintoak larunbata borobiltzeko Elektro Zarata txarangarekin ibiliko dira, gauerditik.

# Santa Ageda bezperan kantu-errondak

Askok baserritarrez jantzita kantatu zituzten koplak astelehenean. Lakuntzan kantu eskean jasotakoarekin merienda egin eta soberan zegoena elikagai bankuari eman zioten. Dirua liburutegian utziko diren haurrendako filmak erosteko izan zen

## SAKANA

Asteartean izan zen Santa Ageda eguna eta bezperan, astelehenean, Sakanako zenbait herrietan abesbatzak sortu eta herrian barna kantari aritu ziren. Hala, Santa Ageda gogoratzen duten koplak kantatu zituzten, besteak beste, Irurtzunen (Aizpea euskaltzaleen topaguneak deituta), Irañetan, Lakuntzan (ikasleak), Lizarragabengoan, Etxarri Arnatzen (ikasleak, musika eskola eta abesbatzak) eta Altsasun (ikastolako ikasleak eta Kukuerreka eta Lagun Onak elkarteetako kideak).



Etxarriko plaza bete zuten eskolako eta ikastolako ikasleek, azoka egunean.



Lizarragabengoan abesten. TERESA GOIKOETXEA



Lakuntzako haurrak kantari. LAKUNTZAN ZE BERRI



Urteen ondoren, Altsasuko Lagun Onak elkarteok kantari.



Adin guztietako kantariak bildu ziren Irañetan. IZASKUN BENGOTXEA



Joan den urteko kintoak. ARTXIBOA

## Hiru kinto izanen dira protagonista Bakaikun

Baina kinto segizioa zortzikote batek osatuko du. Gaurtik domekara arte izanen dira ospakizunak

### BAKAIKU

Aingeru Senar, Unax Aiestaran eta Amaia Vicente dira kintoak. Haiekin batera kinto segizioa bi kinto zaharrek eta hiru kinto gaztek osatuko dute. Zortzikotea gaur Bakarrekotea elkartean bazkaltzera elkartuko da. Herrian poteoan ibili ondoren, iluntzean Altsasura etorriko dira kintoak dantzan ikustera. Herrira bueltan elkartean afalduko dute.

Biharkoa egun bete dute eta indarrak gordeko dituzte. Izan ere, kinto ospakizuna pagatzeko nahikoa diru bildu asmoz, 09:30ak aldera kinto-eskea abiaraziko dute. Baserritarrez jantzita ariko dira eske-errondan, trikitilari eta panderojolea lagun dituztela. Goizez eta eguerdiz ariko dira eginkizun horretan eta haiekin eskuzabal direnei, esker onez, gazta eta txorizoa eskainiko diete. Jasotakoa zenbatu ondoren, Ordiziako sagardotegi batera joanen dira. Haiekin kinto zaharrek ere, 38 bakaikuarrekin autobusa betez.

Bazkaldu ondoren, Ordizian poteatu eta Altsasura joanen dira kintoak, hango jatetxe batean afaldu eta herrian parranda egiteko asmoz. Domekan kinto-ospakizunak despidituko elkarrekin afalduko dute.



Iturmendiko 2018ko kintoak. ARTXIBOA

## Aurtengo lau kintoak 28k osatutako segizioan

Gaur eta bihar izanen dira kinto ospakizunak Iturmendin, 28 gazte bilduko dituztenak

### ITURMENDI

Kinto iturmendiarrak aurten lau dira: Ane Goikoetxea, Unai Lopez de Goikoetxea, Asier Gabirondo eta Amairu Rubio. Haiekin batera kinto segizioa bi urte zaharragoak diren kintoek eta bi urte gazteagoak direnek osatuko dute. 28 gazte guztira. Denden elkartean afaltzera elkartuko dira gaur. Ondoren han parranda egingen dute.

Biharko hitzordua 10:00etan jarria dute. Indarra hartuta kalera baserritarrez jantzita aterako dira, kinto eskean aritzeko. Trikitilaria eta panderojolearen laguntzaz herrian barna eskean ibiliko dira. Haiekin eskuzabal direnei moskatela eta pastak eskainiko dizkiete. Jasotakoa saski batean gordeko dute. Eske-erronda despidituta elkartean bazkalduko dute. Iluntzean Altsasuko kintoak dantzan ikustera joanen dira. Herri horretan afaldu eta parranda egingen dute.

Kinto ospakizunak larunbatean despidituko dituzte. Baina 28ak afariren bat egingen dute aurrerago, ez dakite herriko festetan eta Etxarrikoetan izanen den. Hori bai, kinto iturmendiarrak eske lana aurreratuta dute. Urtezahar gauean kantu-eskean aritu ziren, Urgoiena kanta abesten. 400 euro jaso zituzten.

## Hogeita bateko segizioan zazpi dira aurten kintoak

Atzoko afaria eta gero domekara arteko kinto ospakizunak Urdiainen. Bihar kintada guztiak

### URDIAIN

Peru Galartza, Beñat Mendez, Aritz Goikoetxea, Yaiza Goikoetxea, Jon Aldasoro, Eukene Perez eta Oier Galartza. Zazpikote hori da aurtengo Urdiaingo kintada. Baina haiekin batera kinto gazteak, kinto zaharrak eta beti kintoak ibiliko dira, 21 gazteko kinto segizioa osatuz. Zazpi kintoak ilbeltzeko ostiraletan Javier Zelaiarekin zortzikoa ikasten egon dira. Azken dantza entsegua atzo izan zuten, entsegu orokorra. Eta duela sei urteko ohiturari segituz, hala nahi zuten kintoek bart parranda egin dute.

Urdiaingo gazteek pilotalekuaren azpian lokal bat dute, antroa deitzen dutena. Zazpi kintoak gaur han bazkalduko dute. Ondoren trikitilariak eta panderojoleak lagun, axuri baten zozketarako txartelak salduko dituzte herrian barna. Euren lokalean afaldu ondoren herriko tabernak itxi arte parranda egingen dute, antroan segida emanen diotena.

Biharkoan hainbat urteetako kinto ospakizunak hartuko ditu Urdiainek. Duela 25 urte kinto izandakoek 11:30 aldera plazan zortzikoa dantzatzeko dute. Aurtengo kinto zazpikoteko batzuk dantzaren lekuko izanen dira, besteak ohean egon edo nagi tieka ariko diren bitartean. Kintoak antroan bazkaldu ondoren baserrietara dirua eskatzera joanen dira. Handik bueltan Mareo tabernan afaldu eta gero Altsasun parranda egingen dute. Domekarako fresko egon beharko dute, 11:00etan elkartean gosaltzeko hitzordua baitute. Indarrak hartu ondoren plazara joan eta zortzikoa dantzatzeko dute 12:30ean. Dantzatu ondoren, herriko goiko zatian barna kinto-eskean ariko dira. Arratsaldean herriaren gainerako zatian barna ariko dira. Antroan afaldu ondoren, han 04:00etaraino egonen dira.



Kalez kale ibili ziren ziordiarrek. ARTXIBOA

## Kinto garaia iritsi zaie bi ziordiar gazteri

Gaurtik domekara bitartean kinto ospakizunak izanen dira Ziordian

### ZIORDIA

Aurtengo Ziordiko kintoak bi mutil dira: Inaxio Fernandez eta Mikel Gonzalez. Hala ere, ohienez, kinto ospakizunak ez dituzte bakarrik egingen eta eurenkin batera joan den urtean kinto izandako hirurak, kinto zaharrak, eta sei kinto gazte izanen dira. Guztira 11 gazteko koadrila, gaur bazkaltzera elkartuko dena. Urbasa tabernan jatekoak hartu eta Errekakartea elkartean bazkalduko dute. Poteoan ibili ondoren kinto altsasuarrek dantzan ikustera joanen dira. Herrian afaldu ondoren, Altsasura parrandara bueltatuko dira.

Baina bihar eguerdirako fresko egon beharko dute kinto-eskean ariko baitira trikitilariak lagun. Kinto segizioak, baserritarrez jantzita eta bere presentzia etxajuak botaz iragarritz, etxez etxe eske egingen du. Esker onez zahatoa eskainiko diete haiekin eskuzabal direnei. Kinto-eske despidituta elkartean bazkaldu eta poteoan ibili ondoren Altsasurako bidea hartuko dute, kintoak dantzan ikusi, han afaldu eta parranda egiteko. Ziordiko kintoek euren ospakizuna domekan despidituko dute Urbasa tabernan bazkalduz eta herrian poteoan ibiliz.

## Aurreneko ihoteak, irintarrak izanen dira

Ihote segizioko kideak goitik behera txuriz jantzita joanen dira. Atxun Zarkoa da protagonista

### IRAÑETA

Santa Agedari lotutako inauteri ospakizunak dira Irañetakoak eta sainduaren ondorengo larunbatean, bihar, ospatzen dituzte. Inauteriko protagonista Atxun Zarko panpina da. Hura prestatu nahi duenak, gaur, 18:00ak aldera, Txapel Azpi elkartean du hitzordua.

Larunbat goizean ardi tripotxak gosalduko dituzte. Mahaitik jaso eta ihote jantzia jantziko dute: goitik behera zuriz, bizkarrean koloretako zintak josiak, paxa gorria eta buruan koloretako zintak dituzten txanoak, edo txapelak. Musika lagun, 15-20 bat irintarrek herrian barna kalejira egingen dute. Eta, ohi-turari segituz, segizioak ezkongai dauden emakumezkoen etxean ezpel adartxo egindako paxoak utziko dituzten haien etxeetan. Txapel Azpin 50 bat irintar ardikia bazkaltzera elkartuko dira. 18:30ak aldera, kalera mozorrotuta aterako dira, eta haiekin Aittun Zarkoa. Gurdi batean jarri eta herrian barna kalejiran ariko dira. Behin elkarte parean Antxun Zarkoa sutan erreko dute, bere inguruan dantzatzuten bitartean. Ihote ospakizuna hondarren afairekin despidituko da.

## Etxarri Aranazko ihoteak ostegunean hasiko dira

Astearteyote aurreko hiru ostegunetan ihoteak ospatzen dira Etxarrian. Aurrenekoa heldu den ostegunean izanen da, Gizakunde. Aurtengo ihote egitarauan aldaketarik egingen den aztertzeko atzo bilera egitekoak ziren. Kintoek, gazte asanbladak eta ihote batzordeko kideak ospakizun egunetako bat larunbateara aldatzea aztertu zuten.

## EMAKUM. ERREGIONALA

## 20. JARDUNALDIKO EMAITZA

Burlades - Altsasu **Atzeratuta**

## SAILKAPENA

EMAK. ERREGIONALEKO 1. MULTZOA

1	Osasuna Fundazioa	52
12	Altsasu	19

## HURRENGO JARDUNALDIA

ZEHAZTU GABEKO EGUN ETA ORDUAN

Altsasu - Amigo (*Dantzaleku*)

## Elurrarengatik ezin jokatu

Emakumezkoen erregionalean 20. jardunaldia zegoen jokoan eta Erripagainan Burladesek eta Altsasuk jokatu beharreko partida ezin izan zen jokatu, elurrarengatik. Sailkapenean, Osasuna da liderra (52 puntu) eta Altsasu 12.a da (19 puntu), partida bat gutxiagorekin. Oraindik eguna eta ordua zehaztu ez den hurrengo jardunaldian Altsasuk sailkapenean zazpigarrena den Amigo hartuko du.

## SAKANAKO TOPAKETAK

## PARTIDUAK, BERTAN BEHERA

## Sakanako Futbol Topaketak: asteburuko jardunaldia, bertan behera

Igandean Sakanako Futbol Topaketetako kimuen 10. jardunaldia jokatzeko zen Altsasun eta Urdiainen. Guztira hiru partida ziren jokatu beharrekoak, baina bertan behera geratu dira. Hortaz, asteburuan ez da partidarik jokatu, benjaminen mailako ere atsedean jardunaldia dutelako.

## ARETO FUTBOLA

## Igandean Ziordiko Torneoa jokatu da

Etzi, otsailaren 10eko igande arratsalderako Ziordiko Futbol Torneoa antolatu dute. Ziordiko frontoian jokatu da, 16:00etatik aurrera, eta Sakanako lau futbol taldek hartuko dute parte: Ziordia, Aralar Mendi, Irañeta eta Sutegi. 16:00etan aurrebenjamin mailako partidak jokatu dira eta 17:30ean benjaminen mailakoak.

Ziordiko Futbol Torneoarekin futbol partidetan aritzea ahalbideratu nahi zaie aipatu klubetako neska-mutiko txikienei. Bestalde, partidak jokatzaren bitartean, apirilean jokatu den Ziordiko herri lasterketaren aldeko boletoak salduko direla aipatu dute antolakuntzatik.



Lagun Artea taldeko 2. jubenilen mailako taldea iguera fasea jokatzeko sailkatu da. LAGUN ARTEA

# Jubenilak: Lagun sailkatua eta Altsasu bidean

**FUTBOLA** Jubenilen 2. mailan Altsasu da liderra, Lagun Artea bigarrena eta Etxarri Aranatz hirugarrena. Asteburuan jokatu beharreko jardunaldia aurreratu eta Lagun Arteak Altsasuri irabazi dionez, lakuntzarrek iguera faserako sailkatzea lortu dute

Jubenilen 2. mailako 3. multzoan hiru talde sakandar lehiatzen dira: Altsasu, Lagun Artea eta Etxarri Aranatz. Txapelketako lehen fasean murgilduta daude, beste 9 talderekin batera, eta gauzak primeran doazkie gure taldeei.

Ligako 19 jardunaldi jokatu dituzte eta Altsasu liderra da (51 puntu), jokatuak 19 partidetatik 17 irabazi eta 2 galdu eta gero. Altsasuk puntu bat ateratzen dio Lakuntzako Lagun Artea bigarrenari (50 puntu), Lagun Arteak 16 garaipen, bi berdinketa eta partida bat galdua dituelako, eta 9 puntu sailkapenean hirugarrena den Etxarri Aranatz (42 puntu), etxa-

rriarrek jokatuak 19 partidetatik 14 irabazi eta 5 galdu eta gero. Hortaz, jubenilen 2. mailako 3. multzoko podiuma guztiz sakandarra dela esan dezakegu.

## Bi astetan bi derbi

Asteburuan jokatuak jardunaldian, Altsasuk 2 eta 1 irabazi zion Etxarri Aranatz derbian eta Burlades taldearen kontra 0 eta 3 gailendu zen Lagun Artea.

Asteburu honetan 20. jardunaldia dago jokoan eta Lagun Artearen eta Altsasuren arteko derbia zen jokatzekoa. Baina Altsasun Santa Ageda ospakizunak direnez, adostasunera heldu eta partida hau aurreratu egin zuten. Partida 2 eta 0 ira-

bazi zuten lakuntzarrek, eta, beraz, hurrengo jardunaldian lidergoa lortuko du Lagun Arteak. Etxarri Aranatzek, aldiz, sailkapenean bosgarrena den Inter de Pamplona hartuko du igandean, goizeko 10:00etatik aurrera, Etxarri Aranatz.

## Matematikak

Hiru jardunaldi geratzen dira jubenilen 2. mailako lehen fasea bukatzeko eta sailkapeneko bi talde onenak juniorren lehen mailara igotzeko iguera faserako sailkatuko dira. Lagun Arteak iguera faserako sailkapen matematikoa lortu du dagoeneko, eta Altsasuk esku-eskuan du txartela.



Altsasuko jubenilen 2. mailako taldea. Iguera faserako sailkatzeaz daude altsasuarrek. SDA

## FUTBOL PREFERENTEA

## 18. JARDUNALDIKO EMAITZA

Etxarri Aranatz - Arrotxapea **1-2**

## SAILKAPENA

PREFERENTEKO 1. MULTZOA

1	Lagunak	36
11	Etxarri Aranatz	22

## PARTIDUA

LARUNBATEAN

16:30 Beriain - Etxarri (*Beriain*)

## Etxarriko puntuak Arrotxapeara

Etxarri eta Arrotxapearen arteko partida hareazko zelaian jokatu behar izan zen, belarrezkoa elurtuta zegoelako. Arrotxapea aurreratu zen, areatik kanpo egindako jaurtiketa bati esker. Xabaten golari esker Etxarri berdintzea lortu zuen, atsedendia baino lehen. Bigarren zatian irabaztera ateratu zen Etxarri, baina Arrotxapekoek ongi defendatu zuten eta bigarren gola sartu zuten. Bukaerara arte saiatu zen Etxarri, baina ezin.



## FUTBOL ERREGIONALA

## 19. JARDUNALDIKO EMAITZA

Lagun Artea - San Ignazio **8-1**  
Altsasu - Lagunak B **Atzeratuta**

## SAILKAPENA

ERREGIONALEKO 1. MULTZOA

1	Lagun Artea	48
4	Altsasu	31

## PARTIDUAK

IGANDEAN

18:15 Lagunak - Lagun Artea (*Barañain*)16:00 Aurrera - Altsasu (*Leitza*)

## Altsasuk ezin izan zuten jokatu eta Lagunek garaipen potoloa lortu zuen

Itxasaldeko hareazko zelaian jokatuak partidaren, lakuntzarrek nagusi izan ziren. Horri San Ignazioren atezainaren kanporaketa gehituta, gol festa ederra ospatu zuten Lagun Artekoek, Burillok, Sagarzak, Unanuak (2), Erdoziak eta Davilak (2) sartutako golei esker. Bestalde, Altsasuk eta Barañainek jokatu beharreko partida bertan behera geratu zen, Dantzaleku zelaia elurtuta zegoelako.





Altsasun aritu ziren taekwondolariek sekulako maila eman zuten. FERNANDO SOLA

## Bargagain taekwondo taldekoak primeran Altsasun

**TAEKWONDOA** Larunbatean Nafar Kirol Jolasen Taekwondo Txapelketako 2. fasea jokatu zen Zelandin

Larunbat goizean Altsasuko Zelandi kiroldegian Nafar Kirol Jolasen (NKJ) Taekwondo txapelketako 2. fasea jokatu zen eta Nafarroako taekwondo klubetako borrokalariek hartu zuten parte, tartean Altsasuko Bargagain Taekwondo klubekoak.

Taekwondo konbate txapelketak eta poomsae erakustaldia izan ziren Altsasun jokatu zirenak. Konbate txapelketan primerako lana egin zuten borrokalari sakandarrek. Bargagaingoek lortutako emaitzak aipatzearen, haurren mailan, gizonen “minimosca” mailan Joseba San Migel bigarrena sailkatu zen, eta emakumezkoen “gallo” mailan Leire Etxaniz lehena izan zen. Emakumezkoen “ligero” mailan Alae Hassadi lehena eta Rania Mabchourd bigarrena sailkatu ziren. Kadete mailan, 33 eta 37 kilo arteko emakumezkoetan Erkuden Jin-

xin Moreno altsasuarrak irabazi zuen, eta 44 eta 47 kilo arteko emakumezkoetan Huda Lachab hirugarrena sailkatu zen. Junior mailari dagokionez, gizonen “mosca” mailan Mohamed Es-sobai hirugarrena sailkatu zen eta emakumezkoen “ligero” mailan Irati Irigoien urdiaindarrak izan zen onena, bere taldekide Ane Gilen aurretik. Haien taldekide Eva Saenz hirugarrena sailkatu zen. Bukatzeko, teknikan, lehenengo kadete mailan gizonen Aaron Rodriguezek irabazi zuen.

Aipatutakoez gain, Bargagain klubeko honako taekwondistak aritu ziren, baita ere, Altsasuko 2. fasean: Ekhiñe Agirre, Naroa Olmos, Ikhlas Haiyati, Asmaa Haiyati, Marwan Essobai eta Hugo Rodriguez. Guztiek egindako lanarekin kontentu egoteko arrazoi asko dituzte Bargagain taldean.

## Irati Irigoien selekzioarekin

**TAEKWONDOA** Ilbeltzaren 19an IV. Zaragoza Hiriko Ibercaja Nazioarteko Opena jokatu zen eta bertan Nafarroako Taekwondo selekzioak hartu zuen parte, 23 taekwondolarirekin.

Tartean zegoen Bargagain klubeko Irati Irigoien urdiaindarrak. Bertatik zortzi domina ekarri zituen Nafarroako selekzioak: urrezko bat, zilarrezko bi eta brontzezko bost.



NAFARROAKO TAEKWONDO SELEKZIOA



Igor Arrieta Danimarkan jokaturako Mundialetan, indar betean. ESPAINIAKO TXIRRINDULARITZA FEDERAZIOA

# Igor Arrieta 43.a Ziklokros Mundialean

**ZIKLOKROSA** Munduko Ziklokros Txapelketak asteburuan jokatu ziren, Danimarkako Bogense hirian, eta Aralar taldeko txirrindulari uhartearra junior mailako proban lehiatu zen, Espainiako selekzioarekin

Asteburuan Munduko Ziklokros Txapelketak jokatu ziren Danimarkan, Bogense hirian. Espainiako selekzionatzaile Pascual Momparlerrek 18 txirrindulari deitu zien Espainiako selekzioa ordezkatzeko, tartean Aralar txirrindularitza taldeko Igor Arrieta uhartearra. Igor Arrieta juniorren mailako lasterketan aritu zen, larunbatean, bere taldekide eta lider Carlos Canal eta Gonzalo Inguanzorendako talde lanak egiten.

**Hotz handia eta zirkuitu gogorra** Bogensenen tenperatura oso hotzei egin behar izan zieten aurre txirrindulariek. Horrela, zirkuitua oso gogorra zegoen, izoztuta, eta panorama horrekin ekin zioten probari txirrindulariek. Espainiako junior mailako selekzioan Igor Arrieta, Ibai Ruiz de Arkaute, Carlos Canal, Gonzalo Inguanzo eta Migel Sanchez aritu ziren. Espainiako junior mailako selekzioak podiuma egiteko erronka

zuen, Carlos Canal galiziarra Munduko Kopako azken bi probetan bikain aritu baitzen –Hoogerheiden bigarrena eta Pont-Châteaun hirugarrena izan zen– eta Gonzalo Inguanzo kantabriarra ilbeltzaren 1eko Sven Nys Sari Nagusian bigarrena sailkatu baitzen.

### Juniorren Mundiala

Ongi hasi zen Carlos Canal galiziarra, lasterketa buruan kokatu zen, baina berehala katea atera zitzaion eta aurreko taldearekin minutu bat galdu zuen. Orditik, aurrekoak harrapatzen saiatu zen Canal, taldekideen, tartean Igor Arrietaren laguntzarekin; gutxika postuak aurreratzen hasi zen, eta, azkenean,

**IGOR ARRIETA UHARTEARRAK OSO LAN TXUKUNA EGIN ZUEN BOGENSENEKO ZIRKUITU GOGORREAN**

helmugan zazpigarrena sartu zen, erremontada bikaina egin eta gero. Gonzalo Inguanzo hasieran aurrean egon zen, baina gutxika indarra galtzen hasi zen eta, azkenean, 16.a sartu zen helmugara. Migel Sanchez 35.a sailkatu zen, Igor Arrieta 43.a eta Ibai Ruiz de Arkaute 64.a, lan oso txukuna egin eta gero. Aipatzekoa da munduko junior txapelduna Ben Tulett britainiarra izan zela, eta haren atzetik Meeussen eta Cortjsen belgikarrak sailkatu zirela.

### Burunda eta Aralar klubak, atzerakontuan

Burunda Txirrindularitza klubak 2019 denboraldiko taldearen aurkezpena otsailaren 16an eginen du, hurrengo larunbatean, 12:00etan, Altsasuko Iortia Kultur Gunean. Bestalde, juniorrek eta kadeteek egonaldia egin zuten ilbeltzaren bukaeran Lizarran. Aralar Txirrindularitza taldea ere 2019ko denboraldian murgildua dabil buru-belarri.



Artikutzako ikuspegia. UTZITAKOA

## MENDIA Artikutzara Sakanako Mendizaleekin

Sakanako Mendizaleak taldeak dagoeneko otsailerako irteera prestatu du. Artikutzan barna mendi buelta ederra egitea da asmoa, otsailaren 17an. Dagoeneko irteera horretarako autobuserako izena emateko epea zabalik dago, herrietako mendi arduradunei esanez edo 639 117 631 telefonora hots eginez. Autobusa, otsailaren 17an goizeko 7:00etan abiatuko da Olazititik eta Sakanako herrietan geldialdiak egingen ditu, izena eman duten mendizaleak hartzeko.

Otsailean ere mendi irteera gehiago izango dira. Altsasuko Mendigoizaleak taldekoek prestatzen dituztenaz gain, Iratxok eta Zabalartek irteera bana dute prest otsailaren 23rako.

## SASKIBALOIA Cenicerok 78 eta 65 irabazi zion CBASK taldeari

Autonomia Arteko 2. mailan, 15. jardunaldia, Ceniceron jokatu zuen Altsasuko CBASK Saskibaloit Taldeak, sailkapenean bigarrena zen Cenicerok La Alcoholera taldearen kontra. Partida oso estuan, atzera ere galdu egin zuen CBASK-ek, 13 punturen aldearekin, Cenicerok 78 eta 65 irabazi baitzion.

Egun, Cenicerok La Alcoholera Autonomia Arteko 2. mailako lider berria da (25 puntu). CBASK zortzigarren postutik bederatzigarrenera jaitsi da (18 puntu). Larunbatean CBASKek Logroñon jokatu du, hirugarrena den Sanignacio Rioja taldearen kontra, 20:00etan, Logroñoko Paula Montal kiroldegian.

# Beraza hirugarren beteranoa II. Negu Trailen

**MENDI LASTERKETAK** Berastegin 254 mendi korrikalarik jokatuako 16 km-ko traila Hassan Ait Chaouk eta Sarah Ugartek irabazi zuten, eta korrikalari uhartearra 18.a sailkatu zen. Garingo proban ere maila bikaina eman zuten korrikalari sakandarrek

Igandean II. Negu Traila jokatu zen Berastegin, 16 km-ko eta 1.100 m positiboko desnibeleko mendi lasterketa. Hotza izan zen korrikalarien arerio nagusietako bat, ibilbidea estaltzen zuen elurrarekin batera. Hala ere, 261 korrikalarietatik 254ek lortu zuten proba despeditzea eta Hassan Ait Chaouk billabonatarra izan zen azkarrena (1:29:42). Jose Luis Beraza 18.a sailkatu zen (1:36:17) eta uharte arakildarra podiumera igo zen, probako hirugarren beteranoa izan baitzen. Bestalde, Carlos Mañeru etxarriarra 67.a sailkatu zen (1:50:09). Emakumezkoetan Sarah Ugartek irabazi zuen (1:50:40).

## Garingo Mendi Lasterketan sakandarrak oso ongi

Ilbeltzaren 20an Garingo mendi lasterketa jokatu zen (11 km, 575 m desnibel positiboa), euriarengatik eta lokatzarengatik ibilbide oso irristakorrean. 189 korrikalariren artean Ander



Jose Luis Beraza Berastegiko Negu Trailean, elurtutako ibilbidean. UTZITAKOA

Lazkano andoaindarra gailendu zen (56:32). Jose Luis Beraza 7.a sailkatu zen (59:52) eta haren atzetik, Aritz Munarriz (1:00:05, 8.a) eta Joxeja Maiza (1:00:10, 9.a) etxarriarrak sartu ziren. Jokin Bereziartu altsasuarra

19.a sailkatu zen (1:03:32), Jabi Gasanz altsasuarra 22.a (1:04:12), Carlos Mañeru etxarriarra 80.a (1:13:59) eta Mikel San Martin etxarriarra 158.a (1:28:01). Emakumezkoetan Sarah Ugarte gailendu zen (1:11:48).

## IGERIKETA Altsasuko NKJen jardunaldia, bertan behera

Altsasuko Zelandi kiroldegiak Nafar Kirol Jolasen Nafarroako Promesen Igeriketa Ligako kimuen mailako 4. jardunaldia hartu behar zuen larunbat arratsaldean. Igerilari ugari biltzeakoak ziren Altsasun, Pamplona, Amaya, Tennis, Arenas, Campoamor, Tafalla, Txantrea, Aranguren, Ribera Media, Atalaya, Eskuna, Etxabakoitz eta Sakana Igeriketa taldekoak, eta igeriketa egun polita aurreikusten zen. Baina elurrarengatik jardunaldia bertan behera uztea erabaki zuen Nafarroako Igeriketa Federazioak. Aurrerago jakinaraziko dute noiz antolatuko duten Altsasuko igeriketa jardunaldia.

## ATLETISMOA Senar eta Estarriaga Nafarroako Kros Luzean

Ilbeltzaren 20an Altsasun Nafarroako Kros Laburra jokatu eta gero, igandean Cascanteko krosa jokatu zen, aldi berean Nafarroako Kros Luzea Txapelketa zena. Hotza, ziertzoa eta lohia izan ziren 8.850 metroko probako protagonista nagusiak.

Gizonezkoetan, Altsasuko Kros Motza irabazi zuen Ivan Aceredak, Javier Nagorek eta Jaouad Boulamanek aurrea hartu zuten eta elkarri zaintzen eman zuten lasterketa azken itzulira arte. Hor Javier Nagorek hartu zuen aurrea eta bakarrik iritsi zen helmugara (29:24), Jaouad Boulamaneri 11 segundo (29:35) eta Ivan Aceredari 17 segundo (29:41) atera zizkien. Iratiz Senar launtzarra 43.a sartu zen Cascanteko helmugara (34:20).

Emakumezkoetan gizonezkoen probako antzekoa gertatu zen. Hasieran Maider Leozek hartu zuen aurrea, Alicia Carrera eta Vanesa Pacha atzean zituela. Ez zioten inolako erreleborik egin, baina ongi eutsi zuen Leozek, azkeneko bueltan Alicia Carrerak eraso jo arte. Helmugara bakarrik iritsi zen Carrera (34:58) eta 7 segundo atera zizkion Vanesa Pachari (35:05). Maider Leoz hirugarrena sartu zen (35:14), 16 segundora. Aipatzekoa da Leire Estarriaga etxarriarra 23.a sailkatu zela (44:11).

## Irurtzunen bisitan

**SASKIBALOIA** Asteartean bisita bikaina jaso zuten CB Irurtzun saskibaloit taldeko neska-mutikoeak, Basket Navarra Clubeko Carles Marzo eta Vasilije Curci jokalariena, hain zuzen ere. Basket Navarra jokalariekin saskibaloian entrenatzeko aukera izateaz gain, euren izarrei hamaika galdera egiteko tarteak izan zuten saskibaloit jokalarit irurtzundarrek.



BASKET NAVARRA

## Osasuna Magna vs O Parrulo, gaur Iruñean

**ARETO FUTBOLA** Lehen mailako ligako partida gaur jokatu da, 20:00etan, Anaitasunan

Azken astean Espainiako areto futbol selekzioak lagunarteko lau partida jokatu dituzte, aurreko asteburuan lehen mailan ez zen liga jardunaldirik jokatu. Aipatzekoa da Osasuna Magna taldeko Rafa Usin eta Eric Martel jokalariek Espainiako selekzioarekin aritu direla. Baina aste bateko atsedendia ondoren, asteburu honetan ligako 21. jardunaldia izango da jokoan eta jokalariek euren jatorrizko taldeetara itzuli ziren asteazkenean.

### Laugarren postuari eustea

Lehen mailako areto futbol sailkapenean Barça Lassa da liderra (48 puntu), El Pozo Murciari 2 puntu aterata (46 puntu). Osasuna Magnak laugarren postua eskuratu zuen, ligako azken partidaren Palma Futsal taldeari 2 eta 3 irabazi eta gero (40 puntu), eta talde berdearen helburua garaipenaren xendari jarraitzea da, laugarren postua sendotzeko eta, gutxika, hirugarrena den Movistar Inter taldeari gerturatzeko. Horretarako, gaur, ostiralean, Osasuna Magna taldeak sailkapenean 13.a den O Parrulo Ferrolen kontra irabazi nahi du. Partida Anaitasuna pabilioan jokatu da, 20:30ean.

### “Somos Verdes Somos Rojos” txartela

Osasuna Magna Xotak “Somos Verdes Somos Rojos” txartela ateratu du, taldeko abonatuak eta jarraitzaileak begira. 16 urtetik gorakoek 40 euro ordaindu behar dute txartelaren truke eta 16 urte artekoek, aldiz, 15 euro. Txartelarekin, Osasuna Magna Xota, Xota fundazioa eta areto futbol eskolak laguntzeaz gain, hainbat denda eta komertzioetan beharpenak izango dituzte, Osasuna denda ofizialetik eta Senda Vivatik hasita, makina bat komertzioetaraino.



Asteazkenean aukeratu zuten materiala Galarzak, Ezkurdiak, Irribarriak eta Zabaletak. AZPEITIKO UZTARRIA

# Binakakoa: oraindik ez da ezer erabaki

**PILOTA** Pilotari sakandarrek garaipen garrantzitsuak lortu zituzten azken jardunaldian. Gaur, ostiralean, Azpeitian, Ezkurdia-Galarza Irribarria-Zabaletaren kontra ariko dira eta bihar, Labriten, Altuna-Martijak Elezkano-Rezusta izango dituzte aurkari

Binakako Txapelketako hasierako ligaxkako 11. jardunaldia jokatu zen aurreko asteburuan eta jardunaldia bikaina izan zen pilotari sakandarrendako: hiru-ek, Zabaletak, Martijak eta Ezkurdiak, euren partidak irabazi zituzten eta puntu garrantzitsuak lortu zuten.

Ligaxka despeditzeko hiru jardunaldiren faltan, soilik Elezkano II.ak eta Rezustak (9 puntu) lortu dute finalerdietarako sailkatzea. Irribarria-Zabaletak eta Olaizola II.a-Albisuk 7 puntu dituzte, Artola eta Mariezkurrenak 6 puntu, Altuna III.a-Martijak 5 puntu, Ezkurdia-Galarzak eta Bengoetxea VI.a-Imazek 4 puntu eta Urrutikoetxea-Aretxabaletak 2 puntu. Beraz, sailkapena zabal zabalik dago eta hau ez da, inola ere, bukatu.

**Olaizola II.aren baja, lesioagatik** Aste honetako sorpresetako bat Aimar Olaizolaren baja izan da. Astelehenean entrenatzen ari

zela lesionatu egin zen Goizuetakoa, eta 4 hilabete emango ditu bajaran, ezker hankako koadripeseko zurdan lesio larria egin eta gero. Baikor Axier Arteaga aukeratu du bere ordeztzeko Albisurekin batera igandean Gasteizen Artolaren eta Mariezkurrena II.aren kontrako partida jokatzeko (17:00etan, ETB1). Lesionatuta jarraitzen duen beste pilotaria Baikoko Urrutikoetxea da. Bizkaitarrak eskuko minekin jarraitzen du eta Victorrek hartuko du bere lekua gaur, ostiralean, 20:30ean, Tafallan, Aretxabaletarekin batera Bengoetxea VI.aren eta Imazen kontra aritzeko. Baiko Pilota taldearendako, beraz, ez dago berri onik.

### Ezkurdia eta Zabaleta elkarren kontra

Joseba Ezkurdiak eta Ladis Galarzak Iker Irribarria eta Jose Javier Zabaleta izanen dituzte aurkari gaur, ostiralean Azpeitian (22:00etan, ETB1). Arbizukoa

eta Baraibarkoa aurreko jardunaldian sorpresa eman eta Olaizola eta Albisu irabaztetik datoz (11 eta 22). Ezkurdia eta Galarza partidako dominatzaile argiak izan ziren eta hasieratik hartu zuten aurrea. Olaizola ez zen batere fin ibili eta Albisuk ere ez zuen bere maila eman. Arbizukoarendako eta Galarzarendako akaso beranduegi da, baina euren laugarren puntua lortu dute eta Binakako sailkapena ederki estutzea lortu dute Gaur bosgarren puntua lortzea da euren helburua.

Baina aurrean aurreko larunbatean Labriten Artola eta Mariezkurrena II.a arerio zuzenak irabaztetik datozen Irribarria eta Zabaleta izanen dituzte. Lehia

## AURREKO JARDUNAN IKUSGARRI ARITU ZIREN EZKURDIA, ZABAleta ETA MARTIJA

oso gogorrean kontrako 12 eta 9ari buelta ematea lortu zuten Irribarriak eta Zabaletak, eta, azkenean, 15 eta 22 irabazi zuten. Hasieran parez pare ibili ziren bi bikoak, baina atzeko koadroetan Zabaleta gailentzen hasi zen eta aurreko koadroetan agintea hartu zuen Irribarriak. Mariezkurrena erasotu eta aurrean Irribarriak errematatzea, hori izan zen euren estrategia eta ongi ateratu zitzaion.

Irribarriak eta Zabaletak 7 puntu dituzte eta Binakako finalerdietarako sailkatzeko 8. puntua lortu nahi dute gaur Azpeitian. Baina Ezkurdia eta Galarza dituzte aurrean, berriro sorpresa emateko prest. Bi bikoendako oso garrantzitsua da jokoan dagoen puntua eta hura lortzeko gogor lehiatuko dira.

### Altuna eta Martija bizirik daude

Igandean garaipen oso garrantzitsuak lortu zuten Altunak eta Martijak, Urrutikoetxea ordezkatu zuen Victorri eta Aretxabaletari 22 eta 14 irabazita. Hasieran ederki sufritu behar izan zuten Altunak eta Martijak, Victor eta Aretxabaleta 10 eta 13 aurreratu baitziren. Baina egoerari ongi eusten jakin zuten Aspekoek, atzeko koadroetan Martija gailentzen hasi zen, Altunak txispa berreskuratu zuen, eta 13ra berdindu eta gero, 22 eta 14 gailendu ziren. Euren bosgarren puntua lortuta, txapelketan bizirik jarraitzen dutela aldarrikatu zuten. Bihar, larunbatean, Altuna III.a eta Martija dagoeneko Binakako finalerdietarako sailkatuta dauden Elezkano II.aren eta Rezustaren kontra ariko dira berriro leporaino beteta egongo den Labriten (17:45ean, ETB1).

Binakako finalerdietarako sailkatzeko aukerak izateko euren seigarren tantoa lortu nahiko dute Altunak eta Martijak. Elezkano II.ak eta Rezustak, aldiz, orain arteko ibilbide bikainarekin segi eta lider izaten jarraitzeko euren 10. puntua lortu nahiko dute. Beraz, bi bikoak irabaztera aterako dira eta biharko partida ikusgarria aurreikusten da.

Hiru jardunaldi geratzen dira Binakako final laurdenetako hasierako ligaxka despeditzeko eta oraindik asko dago erabakitzeko. Beste jardunaldi ikusgarri baten atean gaude.

## AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / gutunak@guaixe.eus

## OSTIRALA 8

**ALTSASU** Gazte agenda. Dardo txapelketa.  
18:00etan, Intxostiapuntan.

**ETXARRI ARANATZ** Beilatokia toki egokian. Kontzentrazioa.  
19:00etan, Kale Nagusiko 7.ean.

**ARBIZU ETA ETXARRI ARANATZ** Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioak.  
20:00etan, plazan.

**ALTSASU** Altsasukoak aske kontzentrazioa.  
20:00etan, udaletxe parean.

**ALTSASU** *El gran baño* filma.  
22:00etan, lortia kultur gunean.

## LARUNBATA 9

**ALTSASU.** Auzipetuekiko elkartasun zortzikoa.  
13:00etan, kultur gunearen parean.

**ALTSASU** Gazte agenda. Conecta 4.  
18:00etan, Intxostiapuntan.

**UHARTE ARAKIL** *A bocajarro*,

*reflexiones anarcofeministas* liburuaren aurkezpena Mireia Redondo egilearekin. Gatazka taldeak antolatuta.  
22:30etan, udaletxeko Alhondegian.

## IGANDEA 10

**ALTSASU** *Bumblebee* haurrendako filmaren emanaldia.  
17:00etan, lortia kultur gunean.

**ALTSASU** Gazte agenda. *Monopoly*.  
18:00etan, Intxostiapuntan.

**ALTSASU** *El gran baño* filmaren emanaldia.  
19:30etan, lortia kultur gunean.

**ALTSASU** Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioa.  
20:00etan, Foru plazan.

## ASTELEHENA 11

**ALTSASU** Pentsio duinen alde. Nafarroako Pentsionistak Martxan eta Otsailaren 22ko Plataformak deitutako elkarretaratzea.

12:00etan, udaletxearen parean.

**ALTSASU** *La trama del 4%. Las comisiones del caso de Miguel* liburuaren aurkezpena. Hizlaria: Ahoztar Zelaieta. AGAK antolatuta.  
19:00etan, Gaztetxean.

## ASTEARTEA 12


**ALTSASU** *Pentsioei buruz ezkututzen digutena* hitzaldia. Hizlaria: Nekane Jurado. Sakanako Pentsiodunak antolatuta.  
18:00etan, lortia kultur gunean.

**ETXARRI ARANATZ** *Bi herri, borroka bakarra* Kataluniarekin elkartasunezko kontzentrazioa.  
19:00etan, plazan.

## OSTEGUNA 14

**ALTSASU** *La favorita* filmaren emanaldia.  
19:00etan, lortia kultur gunean.

**ALTSASU** *Dantza* filmaren emanaldia.  
19:00etan, lortia kultur gunean.



**ALTSASU** Barne Barnetik Alvaro Mundiñano etxarriarraren margolanen erakusketa. Otsailaren 5etik 24era. Astelehenetatik larunbatetara 18:30etik 21:00etara eta igandeetan 16:00etatik 20:30era, lortia kultur gunean.


## EGURALDIA ASTEBURUAN

## Ostirala, 8




Goizean hotza egingo du, baina azkenean, eguzkiaren presentzia izango dugu gure zeruan. Hego haizea eta eguzkiaren ondorioz, temperaturek gora egingo dute.

## Larunbata, 9




Eguzkiarekin jarraituko dugu eta temperaturek epelera egingo dute. Hala ere, hodeiak ere ager daitezke zeruan. Hau dela eta, gaua ez da hain hotza izango.

## Igandea, 10



Haizeak ekialdera egingo du eta hodeiak ekarriko ditu gurera. Prezipitazio aukerak izango dira egun guztian zehar, baina oraindik temperaturak epelak izango dira.

## Astelehena, 11



Ipar haizeak temperaturren jaitsiera ekarriko digu eta ondorioz, egun ez atsegina izango da astelehena. Eguztiaren zehar izango dugu euria, eta noizbehinka elurra ere egin lezake.

## ZORION AGURRAK



**Eneritz Fresneda Arza 8 URTE!!**  
Zorionak eta egun ederra pasa. Musu haundi bat zure familaren partez!



**Eneritz**  
Zorionak eta musubek neska txinto ta polittinari! Eguzki on pasatu! Marian eta familia



**Irati**  
Zorionak IRATI!!!! Muxu haundi bat etxekoan partez!!



- Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa
- Balkoien eta terrazen ibitura
- Kolore guztietako mallorkinak
- Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovennavarra.com · www.dekovennavarra.com  
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia · ALTSASU · Tel./Faxo: 948 468 360 · Telefono mugikorra: 690 641 860



## IRAGARKI SAILKATUAK

## LANA

## LAN ESKAINTZA

**Mendialdeko elikadura teknikaria:** Cederla-Garalurrek Mendialde eskualderako (Leitzaran-Larraun-Ultzama-Basaburua-Imotz) pertsona bat kontratatu nahi du, lanaldi erdian eta urte bukarrara arte (kontratua luzatu daiteke). Lehen sektorearen, merkaturatzeko zirkuitu laburren, talde handientzako sukaldaritza eta turismo-sektorearen arteko sinergia-aukeretan oinarritutako ekintza-plan bat diseinatu eta martxan jartzeko da. Curriculumak otsailaren 14ra arte aurkeztu daitezke [info@cederna.es](mailto:info@cederna.es) e-postan. Informazioa: [www.cederna.eu/eus](http://www.cederna.eu/eus).

## ALTZARIAK

## SALGAI

**Sofa-oheta SALGAI.** Gutxi erabilia, oso egoera onean dago. ([www.guaixe.eus/iragarkiak](http://www.guaixe.eus/iragarkiak) web-orrian argazkia ikusgai). 150 euro. Deitu 696126174

## LEHIAKETAK

**GAZTEWOOD Altsasuko gaztetxearen III. Film laburren txapelketa.** Gehienez 15 minutu. Lanak MP4 formatuan, DVDan edo pendrivean aurkeztu behar dira 2019ko martxoaren 19a baino lehen. Informazio gehiagorako [gazteewood@gmail.com](mailto:gazteewood@gmail.com) edo sare sozialetan gazte-wood profilean.

## OHARRAK

**Autobusa AHT-ren kontrako kontzentrazioa joateko:** Tren sozialaren eta Abidarura Handiko Trenaren kontrako kontzentrazioa egingen da Tafallako tren geltokiaren parean Otsailaren 16an, 17:00etan. Sakana Trenaren Alde taldeak hara joateko autobusa antolatzen du. Joan nahi duenak ohiko tokietan eman dezake izena. 15:00etan aterako da Altsasuko autobus geltokitik eta herrietan geldialdiak egingen ditu.

**Bidelagun izan nahi?** Mintzakide programaren bidez euskara praktikatzera elkartzeko dira hizkuntza ikasten ari direnak eta hizketatzeko ohitura dutenak. Euskaldun batekin, bidelagun batekin aritzen dira. Bidelagun izan nahi duzu? 600 482 024 telefonoan edo AEKren Itsasi eskalategian duzu informazio guztia.

**Adona Odol-emateak Olaztin:** Otsailaren 12an, 17:30-20:30. [www.adona.es/eu](http://www.adona.es/eu)

**Sakana Trenaren alde.** Taldea astelehenero, 19:00etan, elkartzeko da. Behin behineko biltokia LABek Altsasun duen egoitzan da, han egiten dira bilerak.

**Nafarroako Elikagaien Bankuaren alde.** Diru ekarpenak kontu korronte haueran egin daitezke: Laboral kutxa 3035 0069

52 0690024878, Rural kutxa 3008 0001 16 07 00279128 eta Caixa 2100 2173 87 0200346965

**GoiEner.** Iruñeko helbide berria: Kale Berria 111, 31001 Iruñea, tel 948 504 135. Hileroko 1. eta 3. asteazkenetan, 17:00-19:00.

**Autoenplegurako laguntza.** Zure lanpostua sortu nahi baduzu Cederla-Garalurrek honako laguntza eskaintzen du: ideia aztertzea, proiektua garatzea, enpresa sortzea edota martxan dagoen jarduerara sendotzea. Argibide gehiago: 948 56 70 10, [sakana@cederna.es](mailto:sakana@cederna.es) edo [sakana.admon@cederna.es](mailto:sakana.admon@cederna.es)

**3MBk kontu korrontea** zabaldu du Rural kutxa eta jendeak han egin ditzake ekarpenak 3008 0093 66 2460985811.

**Auzolana Josefina Arregui klinikari.** Parte hartu nahi dutenek 948 56 38 50 (klinika) edo 689 03 51 02 (Pab) telefonoetara hots egin dezatela

**Josefina Arregui klinikako bazkidea izan nahi baduzu,** urtean 12 euro edo nahi duzun kopurua eman dezakezu. Informazio gehiago [amigosjosefinaarreguilagunak@gmail.com](mailto:amigosjosefinaarreguilagunak@gmail.com) edo [amigosjosefinaarreguilagunak.blogspot.com](http://amigosjosefinaarreguilagunak.blogspot.com)

[www.iragarkilaburak.eus](http://www.iragarkilaburak.eus)

## JAIOTZAK

- **Adil Lahyani Boutzakht,** ilbeltzaren 24an Irurtzunen
- **Eneko Iruñtia Gonzalez,** ilbeltzaren 31n Irañetan

## EZKONTZAK

- **Javier Matias Barrena eta Silvia Asurmendi Ruiz,** otsailaren 5ean Altsasun

## HERIOTZAK

- **Manuela Garcia Martin,** ilbeltzaren 31n Irurtzunen
- **Luis Zabaleta Seguin,** otsailaren 3an Etxarri Aranatz

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

## Heriotza-oharrak

**Despeditu berri duzun hurbileko pertsona horren bizitzaren iruzkina argitaratzeko aukera ematen dizu Guaixek.**

## Heriotza-oharra argitaratzeko baldintzak

Testuak gehienez 1.900 karaktere izan behar ditu, hutsuneak barne. Bat eta bakarra onartuko da, ez baitira kapituluak onartuko. Idatzi guztiak egilearen izen-abizenekin argitaratuko dira. Testuak euskaraz idatziak bidali behar dira. Heriotzaren eta testu bidalketaren artean gutxienez aste bateko tartea egon behar du. Espazio antolaketa dela-eta GUAIXEK eskubidea du jasotako testuaren argitalpena hurrengo astera atzeratzeko. Hala balitz idatzia bidali duenari jakinaraziko zaio. Heriotza-oharra bidaltzen duenak testuarekin batera honakoak bidali behar ditu: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Idatziak helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / [gutunak@guaixe.eus](mailto:gutunak@guaixe.eus)

## Jarri zure iragarki laburra!

948 56 42 75  
[iragarki@guaixe.eus](mailto:iragarki@guaixe.eus)  
[www.guaixe.eus/iragarkiak](http://www.guaixe.eus/iragarkiak)



## Nabarmendu zure iragarkia

Modulo handia:  
24,20 €  
948 564 275

## Nabarmendu zure iragarkia

Modulo txikia:  
14,52 €  
948 564 275

## IRAGARKIA JARTZEKO:

948 564 275

[IRAGARKI@GUAIXE.EUS](mailto:IRAGARKI@GUAIXE.EUS)

[WWW.GUAIXE.EUS/IRAGARKIAK](http://WWW.GUAIXE.EUS/IRAGARKIAK)

• Asteazkeneko 13:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

• GUAIXEK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen

gorabeheren erantzukizunik.

## ORDAINTZEKO ATALAK:

- Etxebizitza Saldu/Errentan.
- Lokalak Saldu/Errentan.
- Irakaskuntza ("partikularrak") eman.
- Salmentak, erosketak eta trukeak.
- Iragarkiak Guaixe paperean eta Guaixe.eus-en argitaratuko dira.
- Iragarki laburrak: 3 euro aste bakoitzeko (BEZ barne).
- Epea: aste bereko asteazkeneko 13:00ra arte.

## ESKELA



**Luis Zabaleta Seguin**

Gogoan zaitugu

Sakanako hiltegiako kideak

## ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75

edo [eskelak@guaixe.eus](mailto:eskelak@guaixe.eus)

► Eskelen tarifak: 50,82 € / 96,80 € / 130,68 €  
prezio hauek BEZa barne dute.

► Bazkideek % 10eko deskontua dute.

► Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00ak baino lehen.



**IZARRA**

HEMEN, ZURE ONDOAN  
AQUÍ, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk  
zeinetan norbait  
ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU

Santa Cruz, 6

ETXARRI ARANATZ

Nagusia, 2

948 05 90 90 · [www.izarratanatorio.com](http://www.izarratanatorio.com)

**IRACHE**  
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

948 19 70 70

@Grupolrache

Grupolrache

[www.tanatoriosirache.es](http://www.tanatoriosirache.es)

# Arte Eszenikoen Zirkuitua Sakanan

Irurtzunen, Etxarri Aranatzan, Altsasun eta Olatzagutian izanen dira Antzoki Sareak antolatutako arte eszenikoen ikuskizunak. Martxoan eta urria bitartean izanen dira emanaldiak, eta, besteak beste, Eva Azpilikueta aktore altsasuarraren lana izanen da

## SAKANA

Martxoan eta urria bitartean Nafarroako Arte Eszenikoen Zirkuitua izanen da Nafarroako 30 herritan. Guztira, 47 ikuskizun antolatu dute eta hamalau konpainiek parte hartuko dute. Nafarroako Antzoki Sarea da zirkuitua antolatzen duen erakundea, eta sarearen barne dauden antzokietara iritsiko dira emanaldiak. Haien artean, Irurtzungo, Etxarri Aranazko, Altsasuko eta Olatzagutiko kultur etxeak. Hortaz, martxoan eta urria bitartean Sakanan goi mailako arte eszenikoen ikuskizunak ikusteko aukera egonen da. Gainera, aurrez dantzari garrantzia eman nahi izan diote.

Nafarroako Arte Eszenikoen Zirkuituaren bigarren edizioa izanen da. Egitaraua "aberaste-ko" zirkuituaren helburuak sareko antzokietara "proposamen garaikideak, sormen arrisku handiagoa dutenak eta gutxieneko arte eszenikoak bultzatzeak" eramate dira. 2017ko Antzerkia Sustatzeko Egitasmotik sortu zen eta hura antolatzen laguntzeko Antzoki Sareak eta Nafarroako Gobernuak hitzarmena sinatu dute; hortaz, Kultura sailak 125.000 euroko diru-laguntza eman du. Aurrekontua 193.800 eurokoa da.



Etxe txikiena Eva Azpilikueta antzezlanaren une bat. VARLEKU TEATRO

Ikuskizunen erdia baino gehiago Nafarroako konpainiek egiten dute. Haien artean, Eva Azpilikueta aktore altsasuarraren Yarleku konpainia dago. Antzezlanaren azken ukituak ematen ari dira, eta laster Feten jaialdian parte hartuko dute. Etxarri Aranatzan urriaren 27an egonen da Yarleku konpainia.

Bestetik, epe laburrean, udaberrian, hirutan egonen da zirkuitua Sakanan. Martxoaren 3an, igandea, *Euria* dantza ikuskizuna izanen da Irurtzungo kultur etxean. Markeliñe dantza konpainia biz-

kaitarrarena da *Euria* ikuskizuna. Ondoren, apirilaren 13an, larunbata, Producciones Maestras antzerki konpainia nafarraren *Loco Desatino* antzezlanaren emanaldia izanen da Altsasuko Iortia kultur gunean. Maiatzaren 4an, larunbata, *Drap-Euraren* bila ikuskizun multimedia izanen da Etxarri Aranazko kultur etxean. Logela multimediaren ikuskizuna Altsasun ere izanen da, udazkenean. Hortaz, zirkuituak urriarri jarraituko du. Urriarri Altsasun, Etxarri eta Olaztin izanen dira emanaldiak.



UTZITAKOIA

## Sarrera preziatuenak

Berri Txarrak taldeak kontzertua eskainiko du martxoaren 27an Altsasuko Gaztetxean. 'Beuden' bira txikiaren barruan egiten du kontzertua Lekunberriko taldeak. Sarrerak otsailaren 5ean salgai jarri zituzten gaztetxean bertan, eta bi ordu lehenago jende-ilara luzea zen. Birarako kontzertuetarako sarrerak 90 minututan amaitu zirela esan zuen taldeak.



BAZTERRETIK

MAR GONZALEZ RUIZ DE LARAMENDI

## Maitasunez jantzitako kaleak

Jaiotzean, begiratzen ikasi baino lehen, gauzen jario amaigabea murgiltzen gara. Gauza denek eskatzen dute gure arreta eta edozeren atzetik joaten zaizkigu begiak. Harrizten gaituen lehenengo gauza zera da: zerbaitek begiratzeko gainontzeko guztia abandonatu beharra, eta erabaki intuitibo horretan gure memoria hazten sumatzeak. Beranduago, zalantza berak, paretaren bat ahaztearen beldurrak urduritzen gaitu museoetan, gure bidea hautatzeko orduan.

Eguneroko bizitzan, zenbait ispluarekin, atearekin, aulkiaekin eta katilurekin ohitzen gara, eta gero eta kasu txikiagoa egiten diegu. Baina gurekin daude beti, eta piztu eta itzaltzen dituzten keinu, begirada eta hitzekin barruan errotzen zaizkigu. Eta horrela koskortzean, kanpoko munduak bere gauza infinituekin erasotzen gaituenean, betirako ditugu gordetik gure lau paretak, eta bazkalostean berotzen gintuen sutondoa.

Eta hala ere, gehiegi eskatzen digu kanpoko munduak, eta maiz ez dakigu nola erantzun oldartzen zaizkigun estimulu

etengabe, arrotz eta aldakorrei. Horregatik ixten ditugu begiak eta gure barne itxian bilatzen dugu babesa. Hortik aurrera, gerturaten zaizkigun gauza denen artean, gutxi onartzen ditugu, eta bakardade estu batean murgiltzen goaz pixkanaka, kanpoko guztia, gris eta xehetasunik gabe mantentzen dugularik gure begi itzalieta.

Eta ados nago, noski, hiriak gehiegizkoak dira, baina badituzte eguzkiari abegi egiteko enparantzak, eta itsasorantz makurtzen diren kaleak. Hauek ikusten ez baditugu, gure begietan dago akatsa.

Eta baliteke, horrela bizirauten gaudela, lagunduko gaituen norbait hurbiltzea. Begi biziak eta hainbat marrazki ekarriko ditu eskuetan, eta hitz eta memoriaren laguntzaz hornituko dizkigu paisaiak. Susmo bezala helduko zaigu orduan haurtzaroan ezagutzen genuen edertasunaren isla. Bihotzean begiak dituenaren begiradak gurea esnatuko du, eta sentimenekin jantziko ditugu orduan kaleak, oraindik artearen balioa ulertzen ez dutenen begiak pizteko esperantzarekin.

www.bertsozale.eus

Sarrerak www.bertsosarrerak.eus atarian salgai



Nafarroako Bertsolari Txapelketa  
2019



### TUTERA

Otsailak 9. 17:30ean, Musika Eskolan

Almar Karrika Iribarren, Eneko Fernandez Maritzalar, Alazne Untxalo Erregerena, Mikel Lasarte Cia, Joana Ziganda Olano eta Saats Karasatorre Martinez

### URDAZUBI

Otsailak 10. 17:30ean, Kultur Etxean

Julio Soto Ezkurdia, Saioa Alkaiza Guallar, Iker Gorosterrazu Elizagoin, Iban Garro Alzuri, Irati Majuelo Itoiz eta Sahats Aleman Sadaba

### IRURITA

Otsailak 16. 17:30ean, Gizarte Bilgunean

Xabi Maia Etxeberria, Xabier Terreros Gartzia, Joanes Illarregi Marzol, Patxi Castillo Graziarena, Xabat Illarregi Marzol eta Endika Legarra Nuin

### LIZARRA

Otsailak 17. 17:30ean, Gazteriaren Etxean

Eneko Lazkoz Martinez, Julen Zelaieta Iriarte, Josu Sanjurjo Altzuri, Amaia Elizagoin Varela, Sarai Robles Vitas eta Diego Riano Barroso





Tuteran parte hartuko duten sei bertsolariak, Karasatorre 1. eskulnean. NAF. BERTSOZALE

## "Erriberan kantatzea polita izanen da, saio berezia"

Bihar, otsailaren 9, larunbata, hasiko da Nafarroako Bertsolari Txapelketa Tuteran. Karasatorrek jokatu du

### ETXARRI ARANATZ

Nafarroako Bertsolari Txapelketa hasteko dena prest dago. Prest daude ere Sakanako bi bertsolariak: Saats Karasatorre eta Eneko Lazkoz. Izan ere, asteburuan lehenengo final-laurdena jokatu du Tuteran. Igandean Urdazubin izanen da saioa. Eta Karasatorre bihar ariko da Nafarroako Bertsolari Txapelketaren mustutze saioan. Lazkoz datorren astean estreinatuko da aurten txapelketan.

Nafarroako Erriberan izanen da Bertsolari Txapelketaren lehenengo saioa bihar. Igandean, aldiz, Urdazubira, Nafarroako iparraldera, bidaiatuko du txapelketak, izan ere, Nafarroako Bertsozale elkartearen, txapelketaren antolatzailearen, helburuetako bat bertsolariak eta euskal kultura geografía osotik sustatzea da. Saats Karasatorre bertsolari etxarriarra ariko da biharko final-laurdenean, 2019ko Nafarroako Txapelketaren lehenengo saioan, Tuteran. Karasatorrek azaldu duenez, "polita" iruditzen zaio Erriberan kantatzea: "saio horiek bereziak izaten dira. Nafarroako beste zonaldeetan batzuetan kantatzea ohituta gaude". Nafarroa Oinez 2019 antolatzen duen Argia ikastolak Tuterako saioaren antolakuntza lanetan dago ere.

Sei bertsolari ariko dira biharko saioan: Aimar Karrika, Eneko Fernandez, Alazne Untxalo, Mikel Lasarte, Joana Ziganda eta Karasatorre. Gai-jartzailea Maialen Belarra izanen da.

17:30etan hasiko da saioa Tuterako Musika Eskolan. Karrika-ekin eta Untxalorenkin noizbait aritu dela esan du Karasatorrek, baina lehenengo aldia izanen da beste hiru bertsolariekin. Izan ere, txapelketan adin tarte ezberdineko jendeak parte hartzen du.

### Bertso eskolan lagun

Karasatorre Etxarri Aranazko bertso eskolan prestatzen aritu da biharko saiorako. Bertan Eneko Lazkozekin eta Joseba Beltzarekin trebatzen da. "Nafarroan bertsoaren mundua oso txikia da eta modu naturalean sortu da bertso eskola hau. Herrikoak gaude". Joseba Beltza epaile lanetan arituko da final-laurden fasean, eta Karasatorreren ustez "okerragoa" izan daiteke: "agian gehiegi ematen ari zarela gerta liteke, eta jaitxi behar zara. Arriskutsua da". Txapelketan bakoitzak bere papera jokatzeko duela azaldu du.

Aurreko txapelketan parte hartu zuten arren, Karasatorrek eta Eneko Lazkozek ez dute txapelketan elkarrekin kantatu. Lazkoz otsailaren 17an, igandea, mustuko da txapelketan, Lizarran. Aurreko txapelketaren finalista izan zen Lazkoz. Lasai dagoela esan du Etxarriko bertsolariak: "beste lasaitasun batekin ateratzen naiz jendaurre-ra. Zerbait gustatzen zaizuenen disfrutatzeke egin behar duzu, ez sufritzeko". Nafarroako Bertsolariak osasuntsu izateko finalean aurpegi berriak behar direla dio, "ni tartean banago".

# Dantza eta zinema hizkuntza bakarrak

'Dantza' filmaren emanaldia izanen da datorren astean, otsailaren 14an, 15ean eta 16an, lortia kultur gunean. Telmo Esnal da filmaren zuzendaria. Dantzaria izandakoa, dantza erabili du herri nekazari baten istorio bat kontatzeko

### Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

Dantzaria izan zen Telmo Esnal zinemagilea Zarauzko Iratzarri dantza taldean hasieran, eta Goizaldi taldean ondoren. Garai horretan Juan Antonio Urbeltzen zortzikoa eta beste hainbat euskal dantzen ikuskizunean parte hartzeko aukera izan zuen. Urbeltzen lana ezagutzeko aukera izan zuen ere. Hortaz, "beti" izan du Esnalek euskal dantzaren ingurua "zerbait" egiteko. Zerbait hori *Dantza* filma da. Zinemaren eta dantzaren lengoaien elkartu ditu "herri nekazari baten" istorioa kontatzeko. Datorren astean, otsailaren 14an (19:00), 15ean (20:00) eta 17an (19:40), Altsasuko Iortia kultur gunean proiektatuko dute filma, eta ostiralean, otsailaren 15ean, Telmo Esnal filmaren zuzendariarekin solasaldia egon da.

*Dantza* filmaren gaia ez da dantza; lengoia baizik. Herri nekazari baten istorioa kontatzeko Esnalek erabili duen hizkuntza da. "Bi lengoai ditugu hor: zinea eta dantza. Eta horiek uztartuz istorio bat sortu dugu". Dantzaren sinbologia jarraituz sortu du Esnalek *Dantza* filmaren istorioa, Jose Antonio Urbeltzek "hainbeste urtetan" egindako lana oinarri hartuta.

### Sinbologia

"Ez dakigu nondik datozen dantzak, badakigu oso zaharrak direla, baina badakigu gure izaera kontatzen dutela". Urbeltzek lurrarekin lotzen ditu dantzak, eta, ondorioz, lurra lantzearekin, fruituekin eta izurriteekin. Dantzen atzetik dagoen hori guztia hartu eta istorio bat sortu zuen Esnalek. "Dantza pila bat daude eta aukeraketa bat egin dugu". Esnalen lana, gidoi-lari bezala, beraz, dantzak istorioaren "zerbitzura" jartzea izan da: "dantza bakoitzarekin zer kontatuko dugu". Gainera, filmean ez dago protagonistarik,



'Dantza' filmaren eszena bat. TXINTXUA FILMS

eta horrek esanahia badu ere: "kolektibitateak du garrantzia. Gure Euskal Herri honetan kolektibitatea indibidualtasuna baino garrantzitsuagoa izan da".

Dokumentalaren eta fikzioaren arteko generoan koka daiteke *Dantza* filma. Hala ere, Esnalendako fikzioa da, nahiz eta dantzen inguruan egin diren ikerketetan eta hipotesietan oinarritu diren filma egiteko. "Herri imaginario" bateko istorioa kontatzen du Urbeltzen dantzen inguruan egindako hipotesiak oinarri hartuta. Hala ere, hipotesiak direla esan du Esnalek, "ezin dugu jakin hala zen edo ez".

### Herri baten dantza

Hasieran lurra dago. Lurrak zuhaitzak ematen ditu eta zuhaitzak izurrietatik zaindu behar dira. Babestuz gero, zuhaitzek fruituak ematen dituzte eta fruituarekin sagardoa egiten da. Orduan, herri baten lanari esker, sagardoa lortzen da, eta hori ospatzeko festa bat egiten da. Festan harreman pertsonalak sortzen dira. Bizitzaren zikloa kontatzen du. Urtaroen joan etorriak. Eta hori guztia hitzik esan gabe, dantzaren bitartez.

Dantzak erriualak izan zitezkeen, edota izurriteen aurkako "konjuroak": "Urbeltzen iritziz, esaterako, ezpata dantza ez da gerra dantza bat nahiz eta ezpatak erabili. Izurriteen aurkako erriual bat zela dio". Hortaz, Esnalek dantza konjuro bezala erabili beharrean, izurritea erakusteko erabili du dantza. "Zinemak dantza beste modu batera ikusteko aukera ematen du. Dantza beti ikuspuntu batetik ikusi dugu, eta hori aldatzeko aukera izan dugu". Zinema eta dantza uztartuz, beraz, aberastasuna eman dio dantzari. "Ez dugu dantzak sekula horrela ikusi".

"Apustu" handia egin dute *Dantza* filma egiten. Dantzaren lengoia erabiltzen den arren, edonork uler dezakeela esan du zuzendariak. Gainera, soinuek garrantzia handia hartzen dutela azaldu du. Grabazioarekin hasi aurretik bazekiten "ezohiko" pelikula bat egingen zutela, eta horrek ere ekoizpena garestituko zuela. "Konplikatu" izan den arren, "oso polita" ere izan dela dio Esnalek. Urte batean grabatu zuten filma, baina aro desberdinetan.

## 11 GALDERA

**Erkuden Ruiz Barroso** OLATZAGUTIA

**1 Noiz ospatu zenuten Santa Ageda?**

1970ko otsailean. 1949an jaiotako kintoak gara. 21 urte bete genituen urtean ospatu genuen. Garai horretan adin horrekin ospatzen zen; soldadutzara joateko urtean egiten zen. Santa Ageda ospatzen zen soldadutzara joateko neurriak hartzera deitzen zigutenean. Beraz, Santa Ageda ospatzen genuen kintoen saildua zelako. Nik uste gaur egun ospatzen dutenek ez dakitela zergatik ospatzen den.

**2 Nola ospatu zenuten?**

Soldadutzara joan behar ginen, diru pixka bat lortzeko eskatzera ateratzen ginen. Hemen jendea herriko orkestra batekin joaten zen, horrela ospatzen genuen. Bazkariak eta afariak egiten genituen eta lortzen genuen dirua gastu horiek ordaintzeko zen. Agian ez zen iristen, izan ere, guk ere musika jartzen genuen plazan. Udalak ez zuen musika kontratazioan parte hartzen. Urte horretan 11 mutilak ospatu genuen Santa Ageda. Eta neskek beste hamaika izan ziren.

**3 Eta zein zen emakumeen patera?**

Neskek ez zuten parte hartzen. Bazkarietako kafera gonbidatzen zituzten bakarrik. Eta ez zuten askoz gehiago egiten. Eta gu lehenengoak izan ginen, gure kinta lehenengoak izan zen, emakumeak festan parte hartzera gonbidatzen. Ez Altsasun, ez Ziordian, Santa Ageda ospatzen zuten bi herrietan, ez zuten egin. Gu lehenengoak izan ginen emakumeak festan sartzen.



1970ko Olaztiko kintoak.

# "Neskak gonbidatzen lehenengoak izan ginen"

Santa Ageda ospakizunetan parte hartzen lehenengo emakumeak Olaztiko 1970ko kintokoak izan ziren. Kintoen gonbidapena jaso zuten eta gogoz hartu zuten. Angel Herrero eta Jesus Olas izan ziren gonbidapena egin zuten kinto horietako bi

**4 Nola eman zenuten urratsa?**

Santa Ageda aurreko egunean afarian erabaki genuen neskek gonbidatzea. Edo egiten genuen ospakizun guztietara etortzen ziren, edo ez ziren ezertara etortzen. Eta hurrengo egunean, goizean, banan banan komunikatzera joan ginen. Orduan, goizean mezara joan ginen eta arratsaldean neskek etortzen hasi ziren. Oso harro sentitzen gara lehenengoak izan ginelako.

**5 Eta ordutik...**

Gurekin ateratzen hasi ziren eta ordutik goizetik ateratzen dira kintoekin. Urte horretatik aurrera parte hartzen dute.

**6 Neskek nola hartu zuten gonbidapena?**

Oso ongi hartu zuten. Lehenengoak izan ziren, eta ez zuten espero. Neskek diotenaren arabera, desiratzen zeuden. Olatzagutian kintoen tradizio handia

zegoen arren, lehenengoak gu izan ginen.

**7 Nola janzen zineten?**

Koloretako brusa, zapiak, makila zapiekin dekoratuta, artile galtzerdiak eta abarkak. Nesken lehenengo urtea izan zenez, ez ziren modu berezian jantzi, agian, zapiren bat jantzi zuten. Baina hurrengoetan neskek janzen hasi ziren. Oso polita izan da.

**8 Urtero ospatzen duzue Santa Ageda?**

Herriko festa hoberena da. Kinto guztiak etortzen dira. Ohitura handia dago, eta Olatzagutian oso garrantzitsua da. Denborarekin hainbat gauza galdu ziren. Santa Ageda egunean afaria egiten genuen. Egunean bertan ospatzen genuen. Eta horrela urte batzuk egon ginen. Ondoren, igandean ospatzera pasa ginen. Festetako egun batean ere denak elkartzen gara. Duela hainbat urte erabaki genuen, nahiz eta edozein egunetan afaria egin, sailduaren egunean bazkaria egitea.

**9 Zuek Santa Ageda ospatu zenuenetik ohitura aldatu da?**

Aldaketa etorri zen soldadutzak kendu zenean. Beraz, gazteak ez ziren soldadutzara deituak eta horregatik hasi ziren gaztegoak ospatzen. Gainera, lehen eskoletan eta edozer gauzetan neskek eta mutilak banatuta geunden. Bestetik, Santa Ageda guztiak elurrarekin egiten ziren. Plazan dantzatzen zutenek elurra kendu behar izaten zuten.

**10 Dantzatzen zenuten, beraz.**

Bai, baina ez Santa Agedako dantzak. Ez ziren zortzikoak Altsasun bezala. Hemen dantzaldiak egiten genituen.

**11 70 urte betetzen dituzue 2019an. Santa Ageda ospakizun berezia da.**

Garrantzitsuagoa datorren urtekoa izanen da. Santa Ageda egin genuenetik 50 urte beteko dira. Aurten akordeoilariarekin kalejira egin dugu, bazkaria eta gero dantzaldira joan gara. Datorren urtean ikusiko dugu.

